



Gabiriako
errezil sagarren
lehiaketa

'Errota eta
energia
berriztagarriak'
jardunaldia
Beasainen



Benito
Lertxundiren
kontzertua
Iparraldeko
ikastolen alde

San Martin jaiak



JOXE TELLERIA, S. M. **Aseguruak
Korreduria**

ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGURATU NAHI BADITUZU, BADAKIZU NORA JO

☎ 943 88 26 43 - 943 88 71 55 - Faxe: 943 88 71 55

Erauskin Plaza, 2

BEASAIN

KREATIBITATEA



EMAKUME EKINTZAILEENTZAKO
ENPRESA KUDEAKETA IKASTAROA

HASI ZURE ETORKIZUNA LANTZEN

EMAKUME, NEGOZIO BAT SORTZEKO IDEIA BAT BADAUKAZU, ZATOZ
GOIEKIRA ETA ZEURE ENPRESA SORTZEKO EMAN BEHAR DITUZUN
URRATSEI BURUZ INFORMATUKO ZAITUGU.

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ AZAROAK 6 ARTE.

TEL. 943 16 18 31
943 16 15 37

ANTOLATZAILEA:



ALDIBEREKO FINANTZIATZAILEA:



EUSKO JAURLARITZA



COMUNIDAD EUROPEA
Fondo Social Europeo

Non zer

6 TXANDAKA: Patxi Zubizarreta

8 AHOLKUA: Hortzak txuritzeari buruz

9 Urruña eta Ziburuko ikastolen aldeko jaialdia

10: Josu Aierbe

11: Errotak eta energia berriztagarriak jardunaldiak

12-13: Joseina Etxeberria

14-15: San Martin jaiak Ataunen eta Zegaman

16-17: Marixular chungintza tailerra.

18: Errezil sagar lehiaketa Gabirian.

19-27 KRONIKAK

ATAUN 19, GABIRIA

20, ORMAIZTEGI 20,

BEASAIN 21, IDIAZABAL

22, ZERAIN 22, ZEGAMA

23, LAZKAO 23, ARAMA 24,

ZALDIBIA 25, MUTILOA 25,

SEGURA 26: ORDIZIA 27.

28: MUSIKA: Araujo y los mecanicos

30-31: AGENDA

32: DEBALDEKO IRAGARKIAK

33: KILOMETROAK 01

30: FOTO ZAHARRA: zegamarrak.

Enpresa berriak sortzeko helburuarekin, Goiekin:

Emakumeentzako enpresa kudeaketa ikastaroak

Goierriko Garapen Agentziko, Goiekiko, inkubategiak, bereziki emakumezkoen zuzendutako ikastaroa antolatzen du azarotik abendura bitartean. Emakume ekintzaileentzako enpresa kudeaketa ikastaroa izango da eta 'Kreatibitatea' izenburua eman diote. "Goierri azken urteetan langabezia tasa jaisten joan da, batez ere gizonezkoena. Beraz, langabezia feminizatzen ari da. Gaur egun langabezia %65a emakumeak dira. Hau ikusita, Goiekin arazo honi irtenbidea aurkitzeko pausoak eman beharra ikusi zen. Hortik sortu zen ikastaroa egiteko asmoa", argitu digu Lierni Ormazabal arduradunak.

Ideiak dituzten emakumeentzat

Goiekiko inkubategia enpresa sortzeko ideia dutenentzako lekua da. Bideragarritasun plana egiten da bertan eta proiektua martxan jartzeko urratsak ere ematen saiatzen dira. Beraz, enpresak sortzeko ideiarekin bat duten emakumezkoen deia berezia egin die Goiekiko. "Lehenengo formazio moduan ikastaroa emango da. Ondoren beti



bezala bideragarritasun plana egiten eta horretan lagunduko zaio. Ideia enpresariala nola garatzen deneti hasi eta bankuekin negoziatzia, eskaerak nola egin... hainbat gauza erakusten zaie". Ikastaroa azaroaren 7an hasiko da. Izen ematea azaroaren 6an bukatzen bada ere lehenengo astean iristen direnak onartuko dira. Izena emateko 943161831 edo 943161537 telefonotara deitu eta Lierni Ormazabalengatik galdetu behar da.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzena Bikuña, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Patxi Zubizarreta eta Edurne Alonso. Azaleko argazkia: Ataungo Udala.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Indar enpresaren eraikin berriaren inaugurazioa

Urriaren 27an, Beasaingo Indar enpresak 28.000 metro karratuko eraikin berria inauguratu zuen. 4.500 milioiko inbertsioa egin da. Inaugurazio ekitaldian Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Josu Jon Imaz Turismo eta Industria sailburua izan ziren besteak beste. Bilboko Metroa, Bilbon eraikiko den tranbia eta Kolonia eta Argentinako trenentzat motorrak egin ditu.

Ikaztegietako kasua

Ikaztegiko gasolindegiko langilea zen Izaskun Larrauri legorretararen hilketagatik auzipetuak zeuden hiru lagunak errugabetzat jo ditu zinpekoen epaimahaiak. Alvaro Reizabal akusazio partikularreko abokatuak, Larrauri familiak hala nahi badu behintzat, errekurtsioa jarriko duela esan du.

Pakito Mujikari 30 urteko kartzela

Entzutegi Nazionalak 30 urteko espetxe zigorra ezarri dio Pakito Mujika ordiziarrari, Carmen Tagle fiskalaren aurkako atentatuagatik.

Bi gazte goierritar hilik motor istripuan

Urriaren 22ko goizaldean, 17 urteko Victor R.R. idiazabalarra eta 16 urteko Beasaingo Israel V.G. hil egin ziren Alegian izandako motor istripuan. Zortzi ibilgailu izan ziren nahastuak istripuan.

Euskal Herriko gazta txapelketa

Urriaren 29an Idiazabalen jokatu zen Euskal Herriko gazta txapelketa Jose Ignazio Gonzalez de Heredia arabarrak irabazi zuen. Bigarrena, Ordiziako Xabier Arsuaga izan zen.

CCOO sindikatuak prebentzio neurriak bultzatu nahi ditu

Lanean sortutako gorreria kasuentzat kalte-ordainak

CCOO sindikatuak Goierriko enpresetan, Gizarte Seguntzak, lanaren ondorioz sortutako gorreria kasuak onar ditzan lortu du. Kalte-ordainak izango dituzte langile hauek. Aldi berean CCOO sindikatuak, prebentziorako politika orokor bat egitea eskatzen du. Bi adibide eman dizkigu CCOOk.

Olaberriako Aceralian 35 langileri onartu diote gorreria profesionala. Guztira 6.924.000 pezetako kalte-ordaina jasoko dute. Beste 10 langile tramiteak egiten ari dira.

Beasaingo CAF enpresan, berriz, 25 langileri onartu diote gorreria eta 4.587.000 pezetako kalte-ordaina emango diote. Beste 35 langilek ere eskaria eginda daukate eta erabakiaren zain daude.

CCOO-k salatu duenez, kopuruak txikiak badira ere, Mutuek eta enpresetako medikuek datu hauek izkutatu egiten dituzte. "Izkutatzeko horrek prebentzioari iruzur egiten dio, izan ere ezagutzen ez dena ezin da prebenitu", dio CCOOk.

Era honetan, CCOOk zarata artean lan egiten duten langileei sindikatura hurbildu eta informazioa jaso dezaten gomendatzen die. CCOOrentzat "tamalgarria da XXI. mendearen atarian, sindikatuak izatea, profesionalen eta osasunaren defentsarako erakundeen aurretik, laneko gaixotasunen berri kaleratzen dutenak eta prebentzio neurriak eskatzen dituztenak".



VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Iñaki Azurmendi arriarandar aizkolaria Euskal Herriko 1. mailan

Urriaren 22an Getxon jokatu zen Euskal Herriko 2. mailako aizkolaria txapelketan 1. mailarako igoera lortu zuen Iñaki Azurmendik. Arriarandarrak bigarren postuan bukatu zuen txapelketa Lopez nafarraren atzetik. Lorpen honek ez du ustekabea harrapatu Iñaki: "Azkeneko urteetan segundu gutxiren tarteagatik ez



nuen igoera lortu eta aspaldi nebilen hori lortzeko esperantzarekin. Lehen mailan bost bat aizkolaria beste guztien gainetik daude, baina horien atzetik beste sorta bat segundu batzuren aldearekin gabilitza, batzuetan hobexego besteetan okerxeago". Lehenengo mailan 11 aizkolaria daude eta hauek ere lehenengo kanporaketa saioa izaten dute eta azken biak 2. mailara jaisten dira. Etxeberrira aurten 1. mailako finalean sartu da eta iaz segundu gutxi kendu zizkion 2. mailako finalean. Barberena, berriz, iaz jaitsi zen eta aurten 2. mailan 4. egin du. Datu hauek ikusita itxaropentsu azaltzen da arriarandarra.

Finalean ez zuen erraztasun handirik izan, "gaizki hasi nintzen, oso urduri eta lotuta. Berotze ariketak egin nituenean izerdia ederki bota nuen eta oso gustura sentitu nintzen. Baina lehen bi enborretan oso urduri eta gaizki aritu nintzen. Banekien ondo aguantatuko nuela eta fuerte asteko asmoa nuen baina ezinezkoa izan zen. 3. enborrean, oinbikoan, hobeto hasi nintzen eta laugarrenetik aurrera askoz hobe. Egur handietan hobeto aritzen naiz, petxu aldetik ondo nabil eta jarraipen gehiago daukat. Beti haseran oso urduri egoten naizenez, alde horretatik hobeto aritzeko zerbait egin nahi nuke". Fisikoki prestatzeko bere kontura dabil Iñaki. "Arrospideak laguntza haundia ematen dit, bera urte askotan ibili da honetan eta asko daki. Prestatzailearekin ere ibilita nago baina gimansio asko agintzen dute, eta guk hor bolumen handia hartzen dugu eta niri behintzat horrek aizkorarako arintasuna kentzen dit. Hori ikusita nik nahiago dut aizkoran entrenatzea, arinago aritzen naiz".

Datorren urtean lehen mailan egotean aldaketa handirik ez du espero Azurmendik, "baina beti ere lan gehixeago egin behar eta hobeto prestatu behar. Urrezko aizkoran sartzea gustatuko litzaidake, horrela neguan prestatzen jarraitu ahal izango nuke. Apusturen bat egitea ere gustatuko litzaidake, baina, orain ez dago lehengo apustu girorik. Horretarako garrantzitsua da inguruan koadrila izatea dirua jarri eta lagundu ahal izateko".



Aralar Bonsai Klub elkarteak

Olaberrian kokatuta dagoen Aralar Bonsai Klub elkarteak hasi du ikasturte berria. Asteazkenetan, hamabostean behin, izango dira klaseak eta Jesus Rodriguez izango da irakaslea. Iurreko eskulan tailerrean izango dira. Bertan parte hartu nahi izanez gero, hona hemen telefonoa: 655 74 96 14.

Ekaitz Goikoetxea

Orexako Orixe bertsopaper lehiaketa irabazi du Ekaitz Goikoetxeak 21 urtekoen artean, 'Zaurira ohitutako odolaren mintzoa' lanarekin.

Unai Baztarrika

Beasaingo Txindoki Institutuko Unai Baztarrika Azkue literatur sariketan, saritua izan da. Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatzen dute Azkue sariketa hau.

Karlos Argiñano

Sukaldari beasaindarrari Kalitate saria eman berri diote, euskal produktuen irudiaren aurrean egiten duen zabalkundearengatik.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak





Haitz Aierbe

Sanmartinak

HBkoa, Oargikoa
ta Haikako gainera
jendea dantzan ibiliko da
alde batetik bestera
musika ona omen daukagu
hortik kontuak atera
bertsotan eta lige kontuan
bada hainbat gora-behera
lasai ibili denok festetan
ondo ibiliko gera.

Festa politak, festa ederrak
hau da gure iskanbila
kanteratikan Bitorrenera
jaiatsi ohi zaigu jentila
ume eguna iritsi eta
zer nolako ume pila
eta ondoren zuriz jantzita
hainbat ta hainbat koadrila
festa giro hau maite duenak
festara etor dadila.

Udazkeneko hipotesia

Udazkeneko bidaia handian doazen usoak edota argindarraren kableetan biltzen hasi diren enarak ikusita, Robert Bly ikerlariarekin gogoratu naiz: haren iritziz, hegaztiekin garunean berezko sena dute eta horrexek ematen die habia egiteko, bikotea erakartzeko edo bidaia handiari ekiteko beharrezko duten informazio eta jakituria guztia. Gizakiok, ordea, jakituria zabalagoa behar dugu gure eguneroko arazoei aurre egiteko, eta hori, gugandik kanpo, ipuinetan gordetzen dugu.

Ia oroitzapen horrekin batera, Joxe Arratibelen *Lapurren leizea* izeneko ipuina datorrit gogora: ehizean zebilen mutil bati, konturatu gabe iluna sartu, eta gaua mendian igarotzea erabaki zuen; babes bila zebilela, mendiaren barrunbetik "Abrite portas, klis, klas!" entzun zuen; orduan, haitza urraturik, zenbait gizon zaldi gainean irteten ikusi zuen; gizon haiek lapurrak ziren eta, mutilak entzun ahal izan zenez, leizean sekulako aberastasunak zituzten; horrekin batera entzun zien kobazuloko sukaldean bi eltze zituztela: bata ttikia eta kristau haragiarekin, bestea handia eta behi haragiarekin; eta eltze handitik jaten zutenak besterik ezin zela irten; gero, "Zerrate portas, klis, klas!" esanda alde egin zuten; orduan mutilak ere hitz magikoak esan, eta lapurren aberastasunekin bidezorroa bete zuenean, eltze handiko behikia jan zuen; etxera itzuli, eta anaiak ondasun haiek ikusi zizkionean, dirugosea piztu zitzaion eta, leizezuloa joanda, hamaika zaku bete zituen; horren ondoren, zalantza sortu zitzaion: ez al zion, bada, anaiak gezurra esango eta ez al zitzaion, bada, eltze ttikitik jatea komeniko?, beharbada anaiak bera hiltzea eta aberastasun guztien jabe egitea nahi zuen; baina eltze ttikitik jan baitzuen, ateraino hurbildurik ezin izan zituen hitz magikoak esan; lapurren beldur, ondasunak hustu, eta ezkutatu egin zen, baina lapurrek berandu gabe harrapatu zuten; baina diruzalea ez ezik, maltzurra ere bazen, eta anaiaren berri eman zien lapurrei, eta gauean halako herrira, halako etxera joateko esan; baina anaiak pertz handi batean olioak irakiten jarri zuten eta, tximiniatik begiraturik, lapurrei lapurtutako urrea iruditzen zitzaion, eta, banan-banan jaitsi zirenean, hil egin ziren. Handik aurrera, bi anaiak aberastuta eta lanik egin gabe bizi izan ziren.

Ipuin horretan dagoen jakituria eta ikasbidea norberaren esku utzita, argi dago Ataun aldeko ipuin hori Arabia aldeko *Ali Baba eta berrogei lapurrak* istorioaren antz-antzekoa dela. Eta udazkeneko nire hipotesia da usok, eta enarek, eta zikoinek ipuinak beren bidaia luzeetan hara eta hona eramaten dituztela, eta ipuinak ez direla hemengo eta hango, gizaki guztionak baizik; horrekin batera, esango nuke hegaztiekin ere ipuinetan gordetzen dutela beren informazio existentziala, eta hori ezin argiago geratzen dela *Peter Pan* izeneko liburuan: "Ba al dakizu enarek zergatik egiten dituzten beren habiak teilatu hegaletan? Etxe barruko ipuinak entzuteko..."



Patxi Zubizarreta



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin

ATAUN

☎ 943 18 03 45



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2

BEASAIN

URBITARTE

sagardotegia



Erretegi modura zabalik

Erreserba telefonoa:

943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



Bittor Jatetxea

San Martin zoriontsuak!

☎ 943 18 00 33 ☎

☎ 943 18 00 84 ☎

ATAUN

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Oturuntzak...

● *Menua eta karta*

*Berezko aparkalekua
Lorategi pribatua
Umeentzako parkea*

urrian

★ Pack **MoviStar Activa**
orain **5.000** pta.ko
saldokin.*

★ Eta gogoan izan:
betealdi bakoitzean
puntuak eta opariak
lortuko dituzu.

★ **1000 WAP**
t e l e f o n o
zozketatzen ditugu

zauden tokian zaudela

Telefónica
MoviStar

**beti
zure ondoan**

* 4000 pta dohain + 1000 pta kupoia bidaltzen baduzu


movitel2000
Mugikortasun digitaleko zentroak

Toribio Alzaga - (ARCCO.ren parean) - DONOSTIA - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi-Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN - Tel.: 943/80 50 89
Irunlarrea, 6 (Barañain Hirib. izkinan) IRUÑEA - Tel.: 948/19 70 72

www.movitel.com - movitel2000@movitel.com

Banatzailerik Ofiziala: *Telefónica*
MoviStar



Edurne Alonso
Odontologa

Nori ez zaio burutik pasa hortzak txuriago edukitzea atsegin izango zitzaioela? Badaude bada, hortzak txuritzekeko prozedurak; hauek, garrantzitsuenen artean.

Gehienetan, kafeak, tabakoak, teak, zenbait medikamentu eta adinak sortarazten du hortzen zikin-tze edo eraldaketa hau. Eta hauek, ongi erantzuten diote hortzen txuritze prozesuari.

- Kanpokoak edo extrinsekoak: kafea, tabakoa, tea eta antzekoak sortuak.
- Barnekoak edo intrinsekoak: obturazio edo enpate zaharrak, endo-

Hortzak txuritzeari buruz

Baina oso garrantzitsua da lehenik eta behin, kolore aldaketaren jatorria zehaztea, bi jatorri bereiztuko ditugularik:

Zertan datza txuritzeak?

Funtsean, bi tratamendu mota bereizten dira; kontsultakoa bata eta etxekoa bestea.

Kontsultan peroxido hidrogenoz, karbamidaz osatutako pasta berezi bat erabiltzen da. Hau hortzen gainean jarri eta bero edo argiaz baliaturik, sesioko 30-90 minutuz mantentzen da ahoan, prozesu hau, 3-10 sesio artean errepikatzen da.

Etxean berriz, kontsultan, neurrira eginiko ferula edo aparatu bat erabiltzen da. Bertan pasta jarri, eta gutxienez 3 orduz mantendu behar da ahoan, nahi izanez gero gau osoan ipinia eduki daitekeelarik. Pasta hau, kontsultan erabiltzen den ber-bera da, baina konzentrazio gutxiagoan, era honetan, aldaketak nabarmenak izaten dira bigarren edo hirugarren hilabetetik aurrera.

Kontuan izan behar da, txuritze prozesua ez dela bizitza osorako eta urte eta erdira prozesu hau errepikatu behar da, hortzen kolore txuria mantendu nahi bada.

Emaizta onenak

Hoberen erantzuten duten kasuak, hori-marroi argi koloreko hortzetan ematen dira, eta batik bat gazte jendean. Hala ere emaitzak asko aldatu daitezke pertsona batetik bestera.

Lehiaketa

Galdera

Noren aldeko kontzertua eskainiko du Benito Lertxundik Ordizian?

Erantzuna azaroaren 20rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztu.

Saria

Benito Lertxundiren kontzerturako 4 sarrera bi pertsonentzat.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Irene Aldasoro.

Irabazlea:

Imanol Iturriotz Lauzirika (Ordizia)

YOSU THERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak



Erakusketa
Ipiñarrieta, 3

☎ 943 725 232 **URRETXU**

Fabrikatik zuzenean

Kataide industrialdea, 4 pab.

☎ 943 770 157 **ARRASATE**

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✕ Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✕ Haurtzaindegia-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✕ Kangueroak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

Goierri Bus

Seguratsun eta kalitatezko zerbitzua

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plaza-takoak
Literadunak komunarekin

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Goierriko ikastolek antolatuta Urruña eta Ziburuko ikastolen alde:

Benito Lertxundiren kontzertua azaroaren 25ean Ordizian

Lau urte dira Beasaingo Andramendi, Ordiziako Jakintza eta Lazkaoko San Benito ikastolak, Lapurdiko Urruñako ikastola eta Ziburuko kolegioa laguntzeko jaialdiak eta ekitaldiak antolatzen hasi zirela. Aurten, Benito Lertxundiren kontzertua antolatu dute. Ordiziako Majori kiroldagian izango da, azaroaren 25ean, gaueko 10etan. Hurrengo egunean, Urruñako kiroldagian, Txomin eta Urbil Artola eta Niko Etxart kantariak izango dira.

Urruñako ikastola eta Ziburuko kolegioa diruz laguntzea eta eurei elkartasuna adieraztea dira Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikastolen helburuak. Bi proiektu edo errealitate horiek babestu nahi dituzte. Duela lau urte hasi ziren ekimen honekin eta dirulaguntza polita bidali izan da Goierritik Lapurdira.

Lau urteetako helburu berarekin, aurten ere, bi jaialdi antolatu dituzte azaroaren 25 eta 26rako. Azaroaren 25ean, Benito Lertxundiren kontzertua izango da Ordizian,



gaueko 10etan hasita. Jaialdiaren aurkezpena Beasain eta Lazkaoko ikasleek egingo dute. Benito Lertxundiren saioaren aurretik Urruñako haurrak ere kantari arituko dira.

Urruñako jaialdian, Txomin eta Urbil Artola eta Niko Etxart kantariak arituko dira, Urruñako haur kantarien on-

doren. Arratsaldeko 4,30etan izango da jaialdia, Urruñako kiroldagian. Goierritik autobusa antolatu da Urruñara joateko.

Txartelak 1.250 pezetan daude salgai, Lazkaoko San Benito ikastolan eta Gerrikon; Ordizian Baga Bigan eta Jakintza ikastolan, eta Beasainen Arrano eta Loinatzen tabernetan eta Andramendi ikastolan. Egunean bertan, ere egongo dira salgai txartelak, baina zertxobait garestixeago: 1.500 pezetan. Txartelek bi jaialdi tarako balioko dute. Aldizkari honetan bertan, lau sarrera zozketatzen ditugu (ikus 8. orrialdea).

Beste bide bat ere jarri dute Goierriko ikastolek Lapurdiko bi ikastola hauek diruz laguntzeko. Bi kontu korronte zabaldu dituzte: Kutxan 21010019580011006764 eta Euskadiko Kutxan 30350017150170061151.

**Iparraldeko ikastolak
diruz laguntzea eta eurei
elkartasuna adieraztea
da helburua**

Ikastolen bilakaera

1998. urtean ireki zituzten Urruñako ikastola eta Ziburuko kolegioa. Urruñan 6 urtera arteko haurrak biltzen dira eta Ziburun hortik gorakoak. Miarritze, Donibane Lohizune, Getari, Bidarte, Ahetze, Urruñ, Hendaia, Azkaine, Biriatsu, Sara, Ziburu, Senpere eta Ainhoako ikasleak joaten dira bertara. 1998-1999 ikasturtean ireki zituzten bi ikastola berri hauek, Kanboko Xalbador kolegioa txikiegia gelditu zelako.

Urruñako ikastolak 20 irakasle, 5 langile eta 152 ikasle ditu. Urtetik urtera haur kopuru haziz doa: 1998an 75 haur hasi ziren eta 1999an 111 ibili ziren.

Ziburuko kolegioan ere gero eta ikasle gehiago dabil eta urtetik urtera kopuru horrek gora egitea aurrirakusten dute. 75 ikasleekin hasi zen 1998an; 1999an 124 izan zituen eta aurten 172 ditu. Beraz, ikasle kopuruaren igoera dela eta ikastetxeak egokitu beharrean daude lapurtarrak.

IN AUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

943 88 43 01 OLABERRIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkartasunaren zirkulua: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Urriaren 17an libre gelditu zen zazpi urteren ondoren

Josu Aierbe: "Espetxea eguneroko borroka psikologikoa da"

Zazpi urte eta hiru hilabete egin ditu kartzelan Josu Aierbek. Valdemoron, Martutenen, Burgosen, Alcazarren eta Topasen bete du bere kartzelaldia. 1998ko maiatzan zigorraren hiru laurdena bete eta legearen arabera kalean egon beharko bazuen ere, urriaren 17an utzi zuen kartzela. "Euskal presoak izateagatik sistematikoki, zigor osoa betetzera zigortzen gaituzte", esan digu Josu Aierbe ordiziarrek.

Salamancako Topaseko kartzelan egon da azkenaldian iazko irailetik. Leongo epaitegia berria da eta ez zegoen presoaren askatasunaren inguruko inolako erabakirik. Errekurtsoa jartzea erabaki zuen eta Josu kalera ateratzeko erabakia hartu zuen epaileak. "Nire erabakia lehenengoa izan da eta prezeden-tea sortu dut, bidea ireki dut. Atzetik datozenei ere ondo etorriko zaie", esan digu.

Zazpi urte hauetan bere ondoan egon direnak eskertu nahi izan ditu lerro hauetatik. Kartzelan gelditu direnei, batez ere Andoni Urrestarazu, Asier Irastorza eta Txemi Arteagari, besarkada bana ere bidali nahi izan die.

- Espero al zenuen orain kalera-
tzea?

- Urriaren 13an aurrez aurreko bisita eduki nuen familia-rekin eta errekurtsioa irabazia genuela esan zidaten, baina autorik ez genuen jaso. Urriaren 17an, ohi bezala arrebari deitu nion lantokira

eta bere nagusiak esan zidan nire bila joan zirela, libre gelditu behar nintzela. 11:15etan jakin nuen eta ia bostetan atera nintzen. Oso hunkituta nengoen, blokeatuta ere bai, baina oso lasai. Nik uste nuen beste urtebete egin beharko nuela kartzelan.

- Zuek izan zineten kale bo-
rroka deitutakoaren akusa-
ziopean kartzeleratu zintuz-
ten lehenak Goierri.

- Harrapatu gintuztenean oso giro tentsioa zegoen, oso nahastua. Gurekin eus-
kal gaztedia zigortu nahi izan zuten. Goierriko sei gaztek orain ere 128 urte kartzela eskaera daukate. Ikusten da Espainiako gober-
nuak bide berdina jarraitzen duela: errepresioa. Euskal gaztedia zigortzea ez dute lortuko, baizik eta gatazka areagotzea. Madrilgo etsaiak ikusten du euskal gaztedia indarrean dagoela, gazte as-
ko datorrela euskal prozesua bultzatzen eta beldur dira. Beraz, gazteak zigortu eta geldiarazi nahi dituzte, baina alderantzizkoa lortzen dute, jende gehiago gehitzea borro-
kara. Eta irtenbidea ez da hori: arazo politikoari irten-
bide politikoa eman behar zaio.

- Isolamenduan egon zara den-
bora askoan. Zein baldintzatan
egon zara?

- 1997ko martxoaren 12an sartu ninduten isolamen-



duan. Alcazarren 4 ordu iza-
ten nituen patioan eta 20 or-
du bakarrik ziegan. Topasen
6 ordu nituen patioan eta 18
ordu bakarrik, ziegan. Isola-
menduan eskubideak askoz
ere murriztuago izaten dira.
Gosaldu, bazkaldu eta afaldu
bakarrik egin behar izaten
genuen. Nire gora-beherak
izan ditut, baina nahiko ondo
eraman dut. Topasen isola-
menduan 10 lagun geunden:
4 politiko eta 6 sozial. Zie-
gak 2 x 4 metro zituen. Pa-
tioak 15 x 6 metro nituen.
Nire bizitza horretara muga-
tu da. Oso zaila da, gogorra,
baina errealitatea da. Kaleko
gauzarik ez nuen ikusten, ze-
rua, hegazkinak eta txoriak
bakarrik, beheko zuloan bai-
geunden. Ordu asko dira ba-
karrik egoteko. Oso garran-
tziatsua da denbora guztian
burua okupatuta egotea. Ira-
kurtzen, ikasten, eskulanak
egiten, kirola egiten... Ten-
sio eta estres asko dago eta

ihes-balbula aurkitu be-
harra dago. Nik kirola
egiten nuen ziegan, egu-
nero ordubete. Espetxea,
paretak, barroteak, kar-
tzelerokoak, jipoiak... dira,
baina azkenean espetxea
burua da. Niretzat espe-
txea eguneroko borroka
psikologikoa bat da, nor-
berak bere buruarekin
eramaten duena. Euskal
militante bezala etsaia-
ren, sistemaren aurka era-
maten dena beste borroka
bat da baina eguneroko
borroka psikologikoa ira-

bazi beharra dago beste bo-
rroka horri aurre egiteko. Ba-
tzutan okerrago eta besteetan
hobeto eramaten da.

- Zer moduz ikusi duzu Ordizia
eta ordiziarrek?

- Harrera oso hunkigarria
izan zen. Estetikoki, gauza
batzuk aldatu egin dira: pla-
zuela osoa, taberna berriak
daude, denda berriak... Lehe-
nengo bi egunetan kontura-
tzen nintzen Ordizia umez
josita dagoela eta asko-asko
poztu naiz. Ni Marten egon
naiz eta zazpi urteren ondo-
ren, bata ezkondua, bestea
haurrekin... aldatu egin ga-
ra eta normala da. Ni ere as-
ko aldatu naiz. 20 urterekin
espetxeratu ninduten eta
28rekin atera naiz. Espetxe-
ko esperientzia oso gogorra
eta latza da baina izugarrizko
eskola izan da niretzat. Kale-
an 20 urtean lortuko ez nuen
heldutasuna lortu dut kartze-
lan. Gauza txikiei, adiskide-
tasunari... balore gehiago
ematea lortzen da. Barruan
egiten diren lagunak betira-
koak izaten dira, oso adiski-
detasun estua sortzen da eus-
kaldunon artean.

"Isolamenduan ordu asko bakarrik
pasatzen dira eta oso garrantzitsua
da burua beti okupatua edukitzea"

Eusko Ikaskuntzak eta Beasaingo Udalak antolatutako:

'Errotak eta energia berriztagarriak Euskal Herrian' jardunaldiak Beasainen



gain, energia berriztagarrien aprobetxamenduan aplikaturiko teknologien testigantza izan diren lantegi guztiak oroitarazi nahi dira; burdinolak, eiherak, malakateak, zentral hidroelektrikoak, etab. Ikuspegi arkeologiko, historiko eta etnografikoa izango du jardunaldi honek.

Jardunaldi hauen abiapuntua Igartzan dagoen erro-

ta da, izan ere, errotek ura edo haizea erabiltzen zuten energi-iturri bezala eta hau kontuan izanda, gaur egun gero eta garrantzia handiagoa duten energia alternatiboaren erabilpenaz hitz egingo da. Eusko Ikaskuntzarentzat Igartza monumentu multzoa leku egokia da jardunaldi hauetarako, burdinolaren aztarnak eta errota bertan baitaude.



'Errotagintza eta energia berriak' erakusketa

Jardunaldiak aprobetxatuz, erakusketa berezia jarri da Igartza jauregiaren lehenengo solairuan, 'Errotagintza eta energia berriak' izenburupean. Abenduaren 10era arte egongo da ikusgai. Ordutegiak: asteazkenetik ostiralerara 18:30etik 20:00etara; larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Erroten inguruko historia eta energiak izandako garapena azaltzen da bertan. Testuak, irudiak, lanabesak, Erriberriko erroren maketa, errotarriak, CAFek duela 30 urte egindako garijotzeko makina, eta abar ikus daitezke. Energia berriztailleen atalak hartzen du erakusketaren azken zatia.

Erakusketarekin batera, ondoan dagoen errota bisitatzeko aukera ere badago.

Eusko Ikaskuntzak, Beasaingo Udalarekin elkarlanean, 'Errotak eta energia berriztagarriak Euskal Herrian' jardunaldiak antolatu ditu, azaroaren 17tik 19ra. Beasaingo Igartza jauregia izango dira, erroretatik oso gertu. Aldi berean, erakusketa ere antolatu da erroten eta energiaren eboluzioaren gainean. Abenduaren 10era bitartean dago ikusgai.

Eusko Ikaskuntzak eta Beasaingo Udalak iazko maiatzaren sinatutako hitzarmenaren arabera, besteak beste, urtean behin, Beasainen, ekintzaren bat antolatzeko konpromezua hartu zuen Udalak. Hitzarmen horretatik abiatuta eta Igartza

monumentu-multzoa eskentoki egoki dela ikusita, 'Errotak eta energia berriztagarriak Euskal Herrian' jardunaldiak izango dira, Igartza jauregia, azaroaren 17, 18 eta 19an.

Erroten eta energia tradizionalen eremuko ondarea eta kultura materialen osagaien ezagutza bultzatu eta zabaldu nahi dira. "Europa osoan erroten ondare eta turismo alderdia garrantzi handia hartzen ari den une honetan eta, era berean, gizartearen historian izan duten eginkizunari balio handiagoa ematen ari zaion garaioan, jardunaldi hauek antolatu ditugu Euskal Herriaren esparruan alor honetako lehen azterketa eta eguneratzea egiteko helburuarekin", diote antolatzaileek. Errotez



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZAL. KOLEGIATUA

Jai zoriotsuak!

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

iPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Joseina Etxeberria ataundarra, Euskadi Gazteako esataria:

"Ramones taldearekin deskubritu nuen musika"

1 990. urtean sortu zenetik, Joseina Etxeberriaren ahotsa entzun dezakegu Euskadi Gaztea irratiari. Telebistarako jauzia ere egin du. Beti ere, musikarekin lotua. Ramones musika taldearekin sortu zitzaion musikarako grina eta harrezkero musikaz inguratutik bizi da ataundarra.

Musika kontuak oso gatzetatik interesatu izan zaizkio Joseina Etxeberriari. "10-11 urterekin Ramones musika taldea deskubritu genuen koadrilan. Ikaragarri iritsi zitzaidan. Ordutik jarrera aktiboagoaz hasi nintzen musika entzuten".

Bilbon kazetaritza ikasi zuen. Irrati libreetan lehenengo saiotoxoak egin zituen. "Eguberri batzuetan etxera etorri eta amak esan zidan Euskadi Irratiari jende gaztea behar zutela musika aurkezteko. Deitu egin nuen eta proba mordo bat egin genituen. 1990ean Euskadi Gaztea sortu zenetik nabil bertan".

Hutsetik hasi ziren lanean. "Izugarrizko erronka



izan zen. Zuzendaritzakoek ez zekiten oso ondo zer nahi zuten, guk ere ez. Euskara aldetik ere izugarrizko gabezia zegoen. Oraindik ere badaukagu. Gure arazoetarikoa bat zen, jende gaztearengana hurbiltzeko zein euskara erabili behar genuen. Irrati urbano bat ere egin behar genuen. 'Bombazo', 'Gran éxito'... horrelako hitzak sortu behar genituen. Oraindik ere arazo hori izaten dugu eta askotan oreka bilatzea zaila izaten da", adierazi digu ataundarra.

Gazteentzako irratiak

Irrati formula egiten du Joseina Etxeberriak. Musika jartzerako orduan zein filosofia izaten duten galdetu diogu: "Gure filosofia da, nola egin gazte jendeari in-

teresatzen zaion irrati bat. Hasiñeran musikal hutsa zen, gaur egun beste atal batzuk ere sartzen ditugu. Batzuk esaten digute zergatik ez dugun euskal musika gehiago jartzen. Hamar euskal kantu segidan jarrita ez gara ari euskal musika defenditzen, geto bat egiten baizik. Hori interesatzen zaionak bakarrik entzungo zaitu. Hamar gauza ezberdin jarrita, berri, eta tartean euskal musika bat, jendearengana gehiago iritsiko gara. Euskal musikarekiko beti egiten dugu diskriminazio positiboa".

Ostegunero irrati formula egiten dutenak elkartu egiten dira. Asteazkenean, etxe diskografikoek, diskoa kalera-tzearekin batera, CD singelak bidaltzen dituzte, hiru bat abestirekin. "Diskoetxeetakoek badakite, irrati guztietan abesti berdinak jarrita, erreferentzia errazago hartzen dela. Bilera horretan erabakitzen da disko bakoitza zein kajoietan gordeko dugun. Kajoietan bakoitzak maiztasuna adierazten du. Lehenengo kajoian badago, hiru ordutik behin entzungo da, bigarrenetan badago lau ordutik behin, hirugarrenean badago sei ordutik behin eta laugarrenean dagoena zortzi ordutik behin. Kajoian zen-

bat eta disko gehiago egon, gutxiago entzungo da. Hau dena noski, orain informatizatuta dago".

Abestiak aurkeztea izaten da bakoitzaren lana. Joseina Etxeberriak adierazi digunez, ez dute ezertxo ere prestatzen, "inprobisatu egiten dugu, nahiz eta klitxe batzuk izaten ditugun buruan. Erritmo bat errespetatu behar da. Abesti guztiek 'intro' bat edukitzen dute, zati musikal bat eta abeslaria kantatzen hasten denean ixilik egon behar dugu. Horretarako, kantua nola datorren eta zer esaten ari zaren kontrolatu behar da. Hasi ginenean ez genekien eta besteak bijilatzen eta probak egiten, ondorio horretara iritsi gara".

Euskal musika

Euskal musikaren maila zer nolakoa ote den galdetu diogu ataundarrari. "Ikaragarriko kantitatea dago. Aste-bukaerero elkarriketa bat egiten dugu eta beti daukagu disko bat aurkezteko aukera. Ziur aski hainbeste musika ezin dugu kontsumitu Euskal Herrian. Oso merkatu txikiarekin ari dira lanean musikariak. Kantitate horretan kalitatea ere badago. Gauza interesgarriak badaude".

ERAUSKIN
HARATEGIA - URDAITEGIA

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

Odokiak, mondeju beltzak eta txorizoak

San Martin jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 18 00 27 **ATAUN**




ZUBIKOETA
GASOLINDEGIA

- Gasolina, gasoila A eta C
- Berogailuentzat gasoil banatzailea
- Autoaren garbiketa moeta guztiak

☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87

Zubikoeta Industrialdea **ATAUN**



Musikarik gabe ezin etsi

- Musikarik gabe imajinatzen al da Joseina Etxeberria?

- Ni erabat alienatuta nago musikarekin. Ia egun osoa pasatzen dut musikarekin. 1994. urtean Estatu Batuetara joan nintzen hilabete eta pikorako eta ez nuen musika aparataturik eramanean, moldatuko nintzelakoan. Baina ez nuen etsi. Disc-mana erosi behar izan nuen.

- Zein musika mota entzuten duzu?

- Urteekin asko ari naiz aldatzen. Lehen pop-rock entzuten nuen gehienbat baina irratian batez ere musika horrekin lan egiten dudanez, beste musika mota bat entzuten dut. Irratian asko jarri ditudan kantu batzuk ezin ditut etxean entzun. Gauza astiroagoak entzuten ditut, jazzaren inguruakoak, klasikoa ere bai... Musika instrumentala asko entzuten dut, eta instrumentala ez bada, ahotsa instrumentua izan dadila. Ez nadila adi egon letrak esaten duena entzunez.

- Telebistarako saltoa ere egin duzu.

- 94. urtean egin nuen lehenengo saioa udan. Kanean jendea ari zitzaidan esaten telebistan musika falta zela. Berotu egin nintzen eta proposamena egin nien telebistakoei. Lan asko egin eta aukera bat eman zidaten. Uda hartako programak, Gaztea musika izenekoa, beraiek espero baino ikusle gehiago

izan zuen. Lehengo urtean, euskal taldeekin, Bilboko Kafe antzokian grabatutako kontzertuak eman genituen; aurkezpen lana egiten nuen nik. Ondo atera zen. Aurtengo udako saioarekin, berriz, entzule asko izan ditugu eta oso harrera ona izan da. Bideoak aukeratzen ditut, eta lan asko daukat. Orain urte osorako programa egiteko aukera eman didate.

- Kamaren aurrean zer moduz sentitzen zara?

- Oso gaizki. Ez naiz ohitzen nire burua telebistan ikusten. Ahotsarekin ere gauza bera gertatu zitzaidan. Baina azkenean jarri egiten da.

- Zenbat konpakto dituzu?

- Jendea irizita dauzkadanak kontuan hartu gabe, 1.100 bat.

- Parrandarako musika bat:

- Bruce Springsteen, Jonh Kugart jarrita emozionatu egiten naiz. Bakailaoak nekatu egiten nau.

- Momentu goxo-goxoetarako musika bat:

- Benito Lertxundiren kantu batzuk fenomeno etortzen dira, soinu banda batzuk ere bai, pelikuletako irudiekin lotzen baituzu musika hori. Niretzat dagoen gauzarik onena, kotxean, bikotea alboan duzula, zure musika jarri eta paisajea nola etortzen den ikustea da. Kotxean oso ondo entzuten da musika, komunean ere bai.

- Gehiena gustatzen zaizun talde bat:

- Nire taldea Ramones da. Edozein lekutara noala ere, beti Ramones eramango dut. Ramones gustatzen zaion jendea oso lagun ona izaten dut.

- Eta gutxiena?

- Beti daude gustatzen ez zaizkidan kantuak, denborarekin mania hartzen diezuna. 80eko hamarkadan bazen Perfect abestia, Fever Grown — Eric Claptonen abesti batzuk ere ez zaizkit batera gustatzen; batzuk asko. Baina Eric Claptonen CDak entzutea pereza ematen dit.

- Kontzertu baterako hiru talde:

- Kontzertu bererako ez baina gustura entzungo nituen kontzertuak hauek dira: John Kugart, Van Morrison eta 10.000 maniacs.



Festa zoriontsuak denoi!

☎ 943 18 00 19 ATAUN (S. Martin)

JOAKIN ZUBELDIA
PINTURA-LANAK



☎ 943 18 02 46 ATAUN

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Elosegi, 1- behe

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

San Martin jaiak Ataunen

San Martingo Jai Batzordeak, Ataungo Udalaren babesean, egitarau betea antolatzen du San Martin jai hauetarako. Aurreko bi asteburuetan giroa berotu ondoren, aste-buru bete-betea dator. Festa zapiak tabernetan egongo dira salgai. Ongi pasa!

Azaroak 10, ostirala: Koadrilen eguna:

12:00etan: Juntadizoa eta poteoa trikitilariekin.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor jatetxean. Aurrez txartelak erosi behar dira bertan azaroak 8 baino lehen.

21:00etan: Rock kontzertua Oargin: Iraun, Guda garaia eta Animese Martinez.

22:30ean: Bertso jaialdia Herri Antzokian: Andoni Egaña, Joxe Agirre, Jexux M. Irazu, Juan Inazio Begiristain, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, eta herriko bertsolari gazteak: Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Iban Urdangarin eta Aitzol Munduate.

24:00etan: Drindots taldearekin dantzaldia.



Azaroak 11, larunbata: San Martin eguna:

11:00etan: Toka txapelketa Zelaieta berrian.

12:00etan: Meza Nagusia hildakoen alde.

Ondoren: Bertsolariak kailustran eta jarraian salda be-roa Atsedentokian.

13:00etan: Kalejira bu-ruhaundi eta trikitixarekin.

14:00etan: Umeen bazkaria Joxemiel Barandiaran Eskolan.

Ondoren: Umeentzako jolas parkea.

14:15ean: Jubilatuen bazkaria Bitor jatetxean.



16:00etan: Mus txapelketa Oargin.

17:00etan: Pailazoak 'Kutxo eta Jai' Auzoeta Udal Kiroldegian.

18:30ean: Antzerkia Herri Antzokian: "Zereko zera zer-zen delako, zerako zerarekin" Azpeitiako Lakrikun taldearekin.

19:00etan: Gestorak antolatutako ekintza Ataungo preso eta errepresaliatuei omenaldia. Ondoren poteoa trikitixa eta bertsolariez alaituta.

Disfraz gaua!

21:00etan: Herri afaria Bitor jatetxean (txartelak aurrez erosi behar dira azaroak 9 baino lehen, bertan).

24:00etan: Imuntzo eta Beloki taldearekin dantzaldia.

Goizaldera: txokolatada.

Azaroak 12, igandea:

11:45ean: Meza nagusia.

12:30ean: Herriko dantza taldearen saioa plazan.

13:00etan: Ikusgarri taldea motozerraz egurra lantzen.

18:00etan: Jentilen etorrera.

Ondoren: mondeju jana kailustran.

**JOSUNE
ARRAINDEGIA**

San Martin zerbitzuak denoi

© 943 18 03 67 Altzanipe
ATAUN (San Martin)

TROSKAETA



*Jaiak gozo-gozo pasa Troskae-
tako nesken partetik*

☎ 943 18 00 37

ATAUN (San Martin)

*Agurtzane
Heapaindegia*

Altzanipe, 2

☎ 943 18 02 93

ATAUN (San Martin)

INAZIO GARMENDIA
Harategia

☎ 943 18 00 32

Dorronsoro-enea
ATAUN



KOLDO KEREJETA S.L.

**IGELTSERITZA
ETA
ERAIKUNTZAK**

Tel/faxa: 943 88 11 66

Mugikorra: 629 44 94 60

Helbarrena, 27 ATAUN

San Martin azoka azaroaren 11n Zegaman



San Martin egun berean izango da aurtien Zegamako San Martin azoka. Aste guttian zehar ere, hainbat ekitaldi antolatu du udalak.

Azaroak 6, astelehena:

18:30ean: hitzaldia, udal-etxean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, baserriaren eskualdatze edota oinordekotzari buruz Gipuzkoan indarrean jarri berri den lege berriari buruz. Hizlariak: Ibai Lertxundi eta Iñaki Mendia.

Azaroak 8, asteazkena:

19:30ean: Gazta dastaketa ikastaroa, Jose Ramon Agiriano, Idiazabal Gazta batzordeko partaidearen eskutik.

Azaroak 9, osteguna:

19:30ean: Ardo dastaketa ikastaroa, Jorge Ponenteren (Parisko Unibertsitatean diplomatua) eskutik. Ondoren afaria izango da.

Azaroak 10, ostirala:

22:30ean: Profesionalen pilota partidak: Lau t'erdiko txapelketaren barruan, Goñi I Elkoro; 2. partida, Titin III-Zezeaga Etxaniz-Lasa III.aren aurka.

Azaroak 11, larunbata:

San Martin eguna:

9:00etatik 12:30era: Pilotalekutik Ur-gain berrirako eremuan, herriko abereen lehiaketa (behiak, behorrak, ardiak, bildotsak) eta abereen erakusketa (bufaloak, oreinak, euskal oiloak...).

9:00etatik 14:00etara: Eliza eta Udaletxeko arkupeetan eta pilotalekuan, landare, fruitu eta barazkien erakusketa; artisau eta eskulangintza erakusketa; eta Marixular ehungintza tailerraren erakusketa.

10:00etan: Herriko kaleetan zehar, bailarako txistularien

kalejira.

11:00etatik 13:00etara: Pilotalekuan, Urbia eta Aizkorriko artzainen 2. Gazta lehiaketa.

11:00etatik 14:00etara: Kultur etxean, tailaketa eta pintura erakusketa.

13:00etan: Pilotalekuan, abere eta gazta lehiaketaren sari-banaketak. Ondoren, lehiaketara aurkeztutako gaztaren dastaketa bertaratuentzat, herriko elkarte gastronomikoen laguntzarekin.

14:30ean: Maiora plaza inguruan, txistularien saioa.

17:00etatik 19:00etara: Tailaketa eta pintura erakusketa.

17:30ean: Herriko kaleetan zehar, kalejira, buruhandi eta erraldoiak, txistulariek alaiturik.

18:30ean: Pilotalekuan, herriarren arteko eskuz binakako San Martinetako 2. txapelketa.

Azaroak 12, igandea:

12:00etan: Pilotalekuan, IX. DV-ETB pilota torneo partidak, infantil eta senior mailakoak.

17:00etan: Pilotalekuan, Txirrikiz emankizuna, Kuku-biltxo taldearen eskutik. Ondoren pilotalekuan, txokolate beroa.

Urbia eta Aizkorriko artzainen 2. Gazta lehiaketa

Latxa arrazako artesnearekin egindako gazta lehiaketa izango da. Artaldearen larre eramua Zegama eta Partzuergoa osatzen duten beste udalerrriak izan behar da lehiaketa honetan parte hartzeko, edo udan Urbia edo Aizkorri izatea.

Lehiakideak jabetzakoa duen artaldearen artesnearekin egindako gazta izan behar da eta gaztak gutxienez bi hilabete izan. Artalde bakoitzetik gazta bakarra aurkez daiteke.

Artaldeak Foru Aldundiko sanitate kanpaina eginda izan behar du. Gazta aurkeztzen duen artzainak gutxienez 50 buruko artaldea izan behar du Foru Aldundiko Nekazaritza Sailan errol-datua 2000. urtean.

Lehiaketan parte hartzeko Zegamako udaletxean, azaroaren 9a baino lehen eman behar da izena. Hala ere, azaroaren 11n, goizeko 9:30etik 10:30era, Zegamako pilotalekuan ere izena eman behar du lehiakideek.

Sariak: irabazlearentzat, 40.000 pezeta, txapela eta garaikurra; 2.arentzat 20.000 pezeta eta 3.arentzat 15.000 pezeta.

TXANTON

Tabernak

egun ona
pasa dezazuela
opa dizue

Tel.: 943 80 11 45

ZEGAMA



943 80 03 10

ZEGAMA

BENITO

Harategia
Urdaitegia



943 80 02 05

S. Barbara, 8 ZEGAMA

Jon Iturrartek jarri du martxan Zegamako udalaren laguntzaz

'Marixular' ehungintza artisau tailerra Zegaman

San Martin egunean 'Marixular' ehungintza tailerra zabalik egongo da Zegamako kiroldegi ondoko 2. solairuko gelan. Bertan ehungintzan erabiltzen den tresneria eta hainbat oihal mota egongo dira ikusgai. Jon Iturrartek martxan jarri duen tailer honetan ehungintza artisaua lantzen da eta herriko hainbat jende bertan ari da artelan honetako teknikak ikasten.

Iaz iritsi zen Goierrira Jon hernaniarra buruan ehungintza artisau tailer bat martxan jartzeko asmoz. Honela deskribatzen du bere burua: "Ni euskal gizarte-artearen kultura sozial eta instituzionala aldera batera utzi eta Zegaman exiliatu naizen ar-



Jon Iturrarteren lehen eskultura 1967an jarri zen eta azkena 1997an, Gernikan. Ehungintza, berriz, 70. hamarkadan Bartzelonan ezagutu zuen.

tista naiz". Goiekira joan zen ehungintza artisau proiektuarekin eta nekazal ekonomia duen eta interes kultural edo ekologikoa duen herri batera joan nahi zuen. "Goiekik proposamen hau udal guztietara pasa zuen eta hurrengo egunean Zegamako alkateak deitu zidan. Honela hartu nuen Zegama-

ra etortzeko erabakia. Eta inolaz ere ez naiz damutzen etorri izanaz", dio.

Udalak kiroldegiari erantsita dagoen eraikuntzan lokala utzi zion bere lana egiteko eta bide batez udalaren laguntzaz ikastaro batzuk ematen ditu. Zegamako udalaren laguntza honez gain, langabezia egon eta bere

kontura lanean hasi nahi duenaren laguntza berdina izan dituela dio Jon Iturrartek.

Proiektuaren nondik norakoak

Iturrarteren ustez proiektuak bi aukera ditu. Lehena artista artisauaren tailerrarena da. Artisaua bere tailerrean lana egitera mugatzen da. Bigarren aukera eskola tailerra eta ehungintza ekoizpen gunearena da. "Bi aukera erabat ezberdinak dira. Lehenengo aukerarako artisaua bere mugekin udalarekin akordio batera iristen da; bigarrenak ere tailer honetan du oinarria baina beste laguntza batzuk behar ditu erabat gauzatzeko. Nire helburua bigarren hau da".

Ikasteko zailtasunak

Gipuzkoan ez dago beste ehungintza artisau tailerrik; Bizkaia, Araba eta Nafarroan badaude bakanen batzuk.

URBIZU

☎ 943 80 19 99

ZEGAMA

ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS



OILOTEGIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

gizarte-ekintza

obra social

• • • • •

Beraz, Iturrartek ez du ikas-
teko garaian erreztasunik
izan, Euskal Herrian ez bai-
tago ikasteko tokirik. "Nik
bila ibili beharra izan dut,
non, nork, zer irakatsi. Edo
erakutsi nahi duen, zenbait
artisau ez baitago irakasteko
prest. Oraingo artisaua ez da
orain dela 50 urtekoa. Berdi-
na egiten ari dela badirudi
ere, formakuntza artistiko,
estetiko, historiko eta tekniko
gehigarria behar du, batez
ere ehungintzan, altzarigin-
tzan eta horrelako lanetan.
Artisautza bizimodua izan
eta iraun ahal izateko lanbi-
de heziketa eskolak behar di-
ra. Garai bateko arte eta ofi-
zio eskolek garai berrietara
egokitu eta aurrera jarraitu
izan balute gaur egun ez zen
arazo hau egongo".


Artisauen lana

'Marixular' produktua eskuz
egindako lana izango da, ar-
tisau lana. "Askoz ere
trapu merkeagoak ba-
daude salgai. Hauek
zerbait bereziagoa
dira, etxeko txokoren
batean jartzeko zer-
bait atsegina izango
da hemengo produktua.
Hori lortzeko bilatzen den
berezitasun hori da artisau

Tailerreko lana

Marixular tailerrean
oihal, mantel, alfondra
eta tapizak egingo dira.
Adibidez, hasieran
egingo duen oihal pro-
totipa 120x50 zmkoa
da, mahai edo kutxa ba-
ten gainean jartzekoa.
Marrazki sinpletasuna
izango du ardatz, eta
kolore aldetik: gorria
(sinbologia aktiboa iru-
dikatzeko du), beltza
(kolore eza) eta grisa
(gure paisaia koloreen
eta izaeraren sintesia)
nagusituko dira.

Herri artisautza oinarri artuta lan egingo
du, baina ez oihalgintza artisautza bakarrik.
Grafia edo marrazkiren bat duena oinarri ar-
turik, euskal oihalgintza artisau baterako es-
tetika egin nahi du Iturrartek, beti ere gaur



eguneko kultura artistikora egokitua.

Momentu honetan kotoia, artilea eta so-
ka batzurekin ari da lanean. Soka oso zaka-
rra da eta zintzilikatzeko tapizari edo alfon-
brari sendotasuna ematen dio.

San
Martin egunean tailerra
irekita egongo da eta
oihalgintza produktuen
erakusketa egongo da, bai
tailer honetakoa eta bai
beste tailer
batzuetakoa.

baten lana, artisau ez dena-
rengandik bereizten duena",
azaldu digu Jonek.

Artisau lan hau ikuste-
ko San Martin egune-
an tailerra irekita
egongo da eta oihal-
gintza produktuen
erakusketa egongo da,
bai tailer honetakoa eta
bai beste tailer batzuetakoa.
Lan hau zabaltzeko asmo-

arekin ikastaroak ematen ha-
si da. 7 pertsona ari dira ikas-
ten bi txandetan, 30 orduko
ikastaroan.

'Marixular' tailerraren
sortzailearen ustez, posible
litzateke etxetan ehundegi
tolesgarri bat eduki eta ordu
libreetan oihalak eginez diru-
txo bat ateratzea eta Zega-
man bertako oihalak salduko
liratekeen denda bat egotea.



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi,
Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan,
Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda,
Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta
Ormaiztegiko Iñaki Erosle.



Olatz Aranburu
Alaitz Zubizarreta

- BERRABILKETA
- DRENAJE LINFATIKOA
- OSTEOPATIA
- ARNAS APARATUKO ARAZOAK
- MASAIK
- ETXEZ-ETXEKO TRATAMENDUAK

Tel: 943 88 19 64 / 607 73 82 78
Santa Maria, 16
20240 Ordizia (Gipuzkoa)

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

Gabiriako Udalak eta Erbie elkarteak antolatuturik:

Gabiriako V. errezil sagar lehiaketa eta baserriko produktuen azoka azaroaren 19an

Aurten bosgarren edizioa izango du Gabiriako errezil sagar lehiaketak eta baserriko produktuen azokak. Azaroaren 19an izango da, goizez. Lehiaketa bat gehiago izango da aurten: menbrilloarena. Gabiriako Udala eta Erbie elkarteak dira antolatzaileak.

Azaroaren 19an, 10:00-etatik 14:00etara izango da festa Gabirian. Eguraldi onarekin plazan eta txarreakin pilotalekuan. Errezil sagar eta errezil sagarrez egindako menbrillo lehiaketa izango dira. Gabiriarrak bakarrik parte har dezakete bertan. Iaz 15 herritarrek hartu zuten sagar lehiaketan. Menbrillo lehiaketa aurten egingo da lehenengo aldiz. Bi lehiaketetan parte hartu nahi duenak, azaroaren 8a baino lehen eman beharko du izena, udaletxean.

Bost lagunek osatuko dute epaimahaia: Gorrotxategi

gozogilea, Beasaingo Roberto Ruiz sukaldaria, Korta jateko Lontxo Ormazabal, Ostatuko Martin Irazustabarrena eta Nekazal sailan ibilitako Salvador Gorostola.

Errezil sagar lehiaketan 3 sari banatuko dira: 12.000 pezeta eta Erbie elkarteak emandako garaikurra; 10.000 pezeta eta Korta jateko emandako garaikurra; eta 8.000 pezeta eta Ostatuak emandako garaikurra.

Menbrillo lehiaketa

Menbrillo lehiaketaren erabakia goizeko 11etarako emanda egotea espero dute antolatzaileek, eta behin lehiaketa bukatuta, bertaritzen den guztientzat, menbrilloa dastatzeko aukera izango da, dohainik. Irabazlearentzat, 8.000 pezetako saria izango da.

Sari-banaketa ekitaldiak ordu bata aldera egingo dira. Goruntz dantza taldeak sagar dantza dantzatu ondoren. Urtero errezil sagarrarekin lotu-



Aurten, Santiago Redondo izango da omendua.

ra duen herritarri egiten zaion omenaldia ere orduan egingo da. Aurten, Santiago Redondo izango da omendua. Santanderkoa da berez, urte askoan Gabirian bizi dena. Sagarrondoaren inausketan lan handia egindakoa da, baserri gehienetan ibilia. Ohi bezala, saskikada bat sagar ere zozketatuko da sari-banaketa garaian. Oihana Arratibel eta Oihana Katarain trikitilariak giroa alaituko dute goiz osoan.

Goizean zehar, Gabiriako baserriko produktuak erosteko aukera izateaz gain, sagardoa nola egiten den ikusteko aukera ere izango da. Gabiria ezagutu eta bertako produktuak erosteko beraz, egun aproposa.

Errezil sagarraren festa hau antolatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza daukate aurten antolatzaileek. Jon Mikel Murua ormaiztegiarra, Nekazari diputatua, Gabirian izango da.



Gabiriako
Udala

**V. Errezil Sagar
Lehiaketa
I. Menbrillo Lehiaketa
Azaroak 19**

*Egun ederra pasa dezazuela
herritarrok eta kanpotik
zatoztenok!*

KORTA
SAGARDOTEGIA ERRETEGIA
☎ 943 88 71 86 GABIRIA

OSTATU JATETXEA
Bazkariak Afariak
Ospakizun bereziak, bataio, jaunartze
Lagunarteko afariak
☎ 943 88 79 13 GABIRIA

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Ataunen mondejuak beltzak dira



Gernikan eta Ibarren piperak, babarrunak Tolosan, Zaldibin mondeju zuriak eta Ataunen mondeju beltzak. Mondeju garaia puri-purian dagoela eta Erauskin harategiko Joxe Ramon eta bere emazte Inarekin jarri nuen hitzordua. Joxe Ramonek adierazi zidan ez etxean betidanik ezagutu ditu mondeju beltzak eta, noizdanik egiten diren zehazki esaterik ez badago ere, urte askotan atzera egin beharko genukeela ez da dudarik.

Irailaren bukaeran ekiten dio Joxe Ramonek mondeju egiteari eta, asteen behin edo bitan, jendearen eskaeraren arabera, otsaila-martxorarte egiten ditu. Astean 80 kilo inguru hasiera batean. Beraiek diotenez Santu Guztia, San Martin inguru honetan izaten da eskaerarik handiena. Orain hasi eta Eguberri ingurura bitartean. Orduan hasten omen dira "matantzak" baserrietan eta "odolki ordainetan" mondejuak bati eta besteari eramaten zaizkienez, salmenta jaitzi egiten omen da.

Odolkiak. Mondejuak. Zertan dira desberdin? Egiteko erabiltzen den odolean. Odolkiak txerriaren odolaren eta gantzarekin egiten dira. Mondejuak berriz, ardi-odol eta ardi-seboarekin. Bai-

na egun legea zorrotz dago eta harakinek debekaturik dute animaliak, lehen bezala, harategian akabatzea. Eta

ardiak ere ez dira salbuespen, noski. Hiltegira eraman eta han akabatzen dira. Joxe Ramonek azaldu zidan, animaliak odol-hustutzen dituztenean ontzi berezi batera erortzen da odola eta han ibiltzen da bueltara. Baina ontzia garesti xamar izaki eta, hiltegiaren txekorrenzat bakarrik erabiltzen omen da ontzi hori. Hau dela eta, harakinei ezinezkoa gertatzen omen zaie ardi-odola lortzea. Dirua nagusi azkenean eta mondejuak eta odolkiak txekor odolarekin egin beste erremediorik ez, beraz!

Odolaz gain, barazki (tipula eta porrua), gatza, pipermina eta ardi seboa dira mondejuak egiteko behar ditugun osagaiak. Odolkiei baino ba-

razki eta piper-min gehiago bota behar omen zaie mondejuei. Osagaiak prest izanik, barazkia jartzen da egosten. Ondo nahastuz eta mimatuz, dena berdina egosi dadin, diosku Inak.

Mimatzea beharrezkoa da. Odola ere sutan jarri. Behin barazkia egosiz gero, ontzi batera atera eta seboa, gatza, pipermina eta odola botatzen zaizkio. Oso ondo nahastu behar da, dio Joxe Ramonek eta estean berotan sartu. Hori omen da sekretua errepikatu dit birritan. Temperatura. Horregatik orain egosketa bukatu bezain pronto, estali egiten omen du eltzeta. Nahasketa punttu-punttuan egon dadin estean sartzerakoan. Eta horrats emaitza! (Argazkian).

Eta auzoko festak gertuan ditugunez, igandean, azaroaren 12an eta Jentilen Etorreraren ostean, izango duzue aurtengo mondejuak dastatzeko aukera.

Agurtzane Bikuña

XXI. Hiru Auzoetako korrikaldia

Aurtengo Hiru Auzoetako korrikaldia zela eta, ezhoiko mugimendua eta jendetza zegoen joan den igandean San Martingo plazan. 96 korrikalarik hartu zuten parte. Horietaatik 10 emakumezkoak. Gizonezkoen artean sailkapena honakoa izan zen: Ingo saria, txapela eta 15.000 pezeta: Xabier Iturralde azpeitiarrak irabazi zuen. 58' eta 27" tako denboraldia eginik. 2. saria, trofeoa eta 10.000 pezeta: Juan Arbeldi soraluzearrentzat izan zen. Hirugarren saria, trofeoa eta 5.000 pezeta Beasaingo Luis Garijorentzat izan zen.

Emakumezkoetan Lazkao Naroa Arrieta izan zen txapel-dun. Ordubete eta 15'ko denboraldian bete zuen joan-etorria. Honek ere 15.000 pezeta eta txapela jaso zituen. 2. Saria donostiar batentzat izan zen, Belen Eskisabel Polankorentzat eta hirugarrena Gaintzan bizi den ataundar batek lortu zuen, Pili Albusuk, hain zuzen ere. Ordubete eta 22'ko denboraldia egin zuelarik.

Bestalde, Ingo beteranoaren saria Juan Rubio Beloki, Ordiziako korrikalariarentzat izan zen. Bere denbora berriz, ordubete eta 7' takoa. Txomin Bikuñak, lehenengo gizonezko herri-tarrari ematen zaion saria eraman zuen.

Emakumezkoen sailean sari hau Pili Albusuk eraman beharrekoa bazen ere, Agurtzane Auzmendi ematea erabaki zuten antolatzaileek. Pili Gaintzan bizi baita. Agurtzanek ordubete eta 28'tan bete zuen ibilbidea. Honi ere, aurrekoei bezalaxe, trofeoa eman zitzaion. Baina ez ziren lehenengo postuetakoak bakarrik izan sarituak. Antolatzaileek azkena egiten zuena ere kontuan izan zuten eta Juan Sasiain Sasiain billabonarra ere saritu zuten. Bestalde, partehartzaileei beren eskerrona adieraztearren, antolatzaileek sari piloa zozketatu zuten korrikalarien artean. Oargi Troskaetaren izenean laguntzen ibili ziren guztiei eskerrak luzatzea eta datorrengoaren zain gelditzea baino ez dagokigu orain.

Labur-labur

● Joxemiel Barandiaran eskolako haurrek aurrera darraite **Otsoa Irratiaren** ostiraleroko programarekin. Herriko berrien jakinaren gainean egon nahi izanez gero, norbaiti diskoren bat eskaini edota haurrek egindako erreportai, elkarriketa... interesgarriak entzun nahi badituzue, FMko 108.5ean aukera ederra izango duzue ostiraleroko, eguerdiko ordu batetik ordu bietara bitartean.

● Aranzadi elkarteko langile talde bat ari da asteotan **San Gregorioko errokatxo eta zerrategian garbiketa lanak** eta bertako tresneriaren inbentarioa egiten. Ataungo Udalak eta Foru Aldundiak aurrera daramaiten ekimen honen berri datorren zenbakian izango duzue.



Udazkenaren fruituak erakusgai

Udazkena izaten da urtean zehar lurrean erein, aldatu, zaindu eta heldutako fruituak biltzeko sasoia, egindako lanaren ordaina eta harrotasuna ematen duen aroa. Gure herri honetan sagarrak ukae-

zinezko garrantzia duela eta, prestigioa igotzen laguntze aldera ospatzen da urtero errezilaren inguruko lehiaketa eta baserriko produktuen azoka, aurtun bosgarren al-diz.

Ormaiztegi

Ohi bezala Ander Deunaren jaiei hasiera mendiko asteak emango die. Mendiko astea azaroaren 20tik 26ra bitartean ospatuko da. Gainera, azaroaren 25 eta 26an Ander Deunaren jaiei dagokien lehenengo aste buruko ospakizunak ere izango dira.

Mendiko astearen barean, 20tik 24ra mendia emanaldiak izango dira. Ondoren, azaroaren 25ean eskalada saioa izango da goizeko 10etatik aurrera Zubieta kiroldegian.

Azaroaren 26an, Ormaiztegi-Ormaiztegi mendia-irtee-

Mendi astea

ra izango da herrian zehar burutuko den ibilaldia osatuz. Parte hartzaileek irteera herri enparantzatik egingo dute, goizeko 8,30etan. Helmuga berriz, Itxune erretegi aurrean kokatuko da eta partaideen artean hamaiketako banatuko da. Arratsaldean, berriz, gaztaina jatea izango da herriko enparantzaz, 18:00etatik aurrera. Jarraian, Kirol elkarteko mendiko sailaren filmina emanaldia izango da.

Hitzaldia

Azaroaren 23 eta 24an, nahi duten guztientzat, On Julian Bereziartua sendagileak osasunari buruzko hitzaldiak eskainiko ditu. Hitzaldiak arratsaldeko 5,30etan izango dira, Kultur etxeko aretoan. Parte hartzaileek sendagileari galderak egiteko aukera izango dute, sendagileak osasunaren inguruko hainbat gai aztertuko dituelarik.

Ander Deunaren jaiak

2000. urteko Ander Deunaren jaiei hasiera, azaroaren 29an Ander Deunaren bezperan,

Errepideen konponketa

Denbora gutxi barru dira Ormaiztegitik datorren goiko bidea asfaltzen hastekoak, Eguzkitzako bidegurutzera. Hainbeste urtean errepidea oztopatzen zuen lubizi arriskutsua orain gutxi kendu dute, azkenean bi udaletako eta diputazioaren arteko konponezinak amaituta.

Zuzulatik Maerdiko beheko kruzera bitarteko zatiari ere orain helduko diote.

Laburrean

- Urriaren 29an Idiazabalen ospatu zen hegoaldeko lau probintzietako gazta txapelketan Baztarrikakoak sartu ziren.
- Herri-eskolan burutu behar diren lan batzuen ondorioz medikuaren kontsulta ondoko lokalak egokitu dituzte eskolak emateko.

Erbie Elkarrekin eta Gabiriako Udalak azaroaren 19a izendatu dute horretarako eguna, ikusteko eta parte hartzeko makina bat ekitaldi jarrita. Batetik errezil sagarrik onenak hautatuko dituen lehiaketa egingo da; bestetik, eta berrikuntza gisara, irasagar edo menbrillo lehiaketa ere martxan jarriko dute antolatzaileek. Jakina, egun honetako errege den sagar motarekin egindakoa izan beharko du.

Lehia alde batera utzita, baserriko produktuak jendaurrean aurkezteko eta saltzeko aukera ere egongo da azokaren bitartez.

Xehetasunak nahiz baldintzak jakiteko, edo ekintza hauetan izena emateko udaletxera jo beharko da, azaroaren 8a, asteazkena, baino lehen. Antolatzaileek data errespetatzeko erregutzen dute, guztia egoki prestatzen.

Aimar Maiz

emango badiogu ere, aurreko astebururako, azaroak 25 eta 26rako, ere hainbat jai ekintza antolatu dira. 25ean, lagun taldeen bilkura egingo da 12:00etan eta herri bazkaria egingo dute. 17:00etan, Aliaren Mundu zoragarria antzezlanak izango da eta 18:00etan Maider eta Xabi trikitilariak.

Igandean, artisau erakusketa, Loinatz abesbatza, Goruntz dantza taldea, pilota partidak... izango dira. Informazio gehiago hurrengo alean.

Aitziber Murua

Asmuberen X. urteurrena

1990. urteko azaroaren 9an sortu zen Beasaingo Emakumezkoen Elkarte, beren partaideei ekintza desberdinak eskaini asmoz. Urte osoan zehar egitarau zabala eskaintzen du; ikastaro eta tailerrak, hitzaldiak, artisautlanak eta irteera kulturalak besteak beste. Emakumezkoen arteko adiskidetasuna eta elkartasuna bultzatzeko topagunea ere bada.

Ikastaro eta ekintza asko izaten dira urtean zehar eta horien artean yoga eta pintura ikastaroak dira arrakasta gehien dutenak.

150 bazkide inguru dira eta antolatzen dituzten ekintzak Beasaingo nahiz eskualdeko pertsona guztiei irekiak dira. Bazkide izatearen abantailak, ikastaroetan eta mota ezberdinetako ekintzetan dirulaguntzak izatea eta bazkide ez direnen aurrean lehenetasuna izatea da.

Urbi-etxean duten aretoa da beraien topagune. Emakunde, Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Udalaren dirulaguntza jasotzen dute.

X. urteurrena nolabait ospatu behar eta inoiz baina ekintza gehiagorekin emango diote amaiera urteari. Urrian ikastaro sorta ederrari eman zioten eskiera eta azarorako beste ekintza batzuk antolatu dituzte:

Azaroaren 6an Asmubere elkarteak ateak irekiko ditu denentzat **17:00-etatik 19:30etara**.

Azaroaren 7an 'Taller de letras' en egindako lanen aur-



kezpena Udaletxeko Batzar Aretoan **18:00etan**.

Azaroaren 8an irteera kulturala egingo dute, La Perla, Kursaal eta San Telmora.

Azaroaren 9an Txaro Arteagaren hitzaldia Asmuberen X. urteurrena ospatzeko Udaletxeko Batzar Aretoan, **18:00etan**.

Azaroaren 10an, Kimetz, Iratzar, Mairi, Azki eta Emakundeko kontsulta-batzordeko lehendakariaren arteko topaketa, Udaletxeko Batzar Aretoan **15:30ean**.

'Osasuna eta Elikadura' ikastaroa emango da azaroko ostiraletan Urbieta Arte Plastikotako zentroan, **18:00etan**. **Azaroaren 3an**, 'elkadura eta dieta orekatua' gaiaren inguruan arituko dira. **Azaroaren 10an**, 'jateko dauden ohiturak eta honek elikaduran duen eragina' aztertuko dute. **Azaroaren 24an**, 'janariaren erosketa eta manipulaketa' zertan den ikusiko dute.

Erakusketa: 10 urte hauetan tailer desberdinetan egin dituzten lan desberdinak ikusteko aukera izango da azaroaren 17tik 26ra.

Udazken kulturalako ekintzak

Lehiaketak

● **XIII. Errezil sagar eta Postu-dotoretasun lehiaketa.** Azaroak 7. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkarte. Azoka berezia ospatuko da egun honetan, eta bide batez, errezil sagarrik onena eta posturik dotoreena aukeratzeko dira.

● **IX. Argazki rallyko** sari-banaketa eta aurkeztutako lanen ikustaldia **azaroaren 12an** egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan.

Antzerkia

● **Yllana** taldeak '666' lana aurkeztuko du **azaroaren 9an**, Usurbe Antzokian gaueko 9etan.

● **Kollins Klown** taldearen 'Bikingoak' ikuskizuna **azaroaren 12an**, **18:00etan** Joan Iturralde plazan.

Musika

● **Juan Carlos Perez**en emanaldia izango da **azaroaren 10an** **22:15ean** Usurbe Antzokian. Sarrera 1.000 pta.

● **Brigantia Folk** taldearen emanaldia **azaroaren 11n** **19:00etan** Loinazko San Martin plazan.


● **Txistulariak.** Udaleko Txistulari-banda kalejiran ibiliko da goizeko 9:30etik aurrera. **12:00etan** Goierriko Txistularien kalejira izango da eta ondoren kontzertua eskainiko dute Loinazko San Martin plazan.

Nekane Altuna

Errotak eta energia berriztagarriak

Jardunaldiak

Errotak eta energia berriztagarrien inguruko jardunaldiak egingo dira azaroaren 17, 18 eta 19an Beasainen. Beasaingo Udala eta Eusko Ikaskuntzak antolatua da eta Euskal Herrian egiten den lehen azterketa eta eguneratzea egiteko helburuarekin antolatu dira jardunaldi hauek. Energia berriztagarrien aprobetxamenduan aplikaturiko teknologien testigantza izan diren lantegi guztiak oroitarazi nahi ditu: burdinolak, eiherak, malakateak, zentral hidroelektrikoak, etab.



Erakusketak

Beasaingo errotagintzaren inguruko erakusketa ikusteko aukera dago abenduaren 10a bitarte. Igartzako multzo monumentala ezin marko egokiagoa da erakusketa hau egiteko. Bertan, burdinolaren eta errotaren hondakinak kontserbatzen dira, biak energia hidraulikoaren aprobetxamendu tradizionalaren testigantzak. Errotara egiten den bisitaldiak osatzen du erakusketaren ibilbidea.

Odol-emaile gazteen beharra

Idiazabalgo Odol-emaileen Elkartek, aurreko odola emateko izan den 3 aukeretan herritarrek izandako erantzun ona azpimarratu du. Otsailean, ekainean eta urrian ateratako odolarekin 170 odol poltsa bete dituzte. *"Idiazabalek bi mila biztanle dituela kontutan hartuta, batz besteko ederra"*, Odol-emaileen Elkartekoen esanetan. Datorren urtean ere hirutan izango da odola emateko aukera. Egunak zehaztu gabe dauden arren, idiazabaldar guztiei odola emateko deia egin dute Odol-emaileek, *"bereziki gaztediari, aldamenekoari lagunduz, norberarentzat ere mesedegarria izaten baita kasu gehienetan"*.

Aspaldi odola ematen hasi, eta ekintza hori 25 bider errepikatu duten 5 herritarrek jaso dute aurreko oroigarria. Urriaren 21ean, egin zen bailarako intsignien banaketa.

Bertan omendutako herritarrek, Seberiano Ariztimuño, Monse Delgado, Jose Goia, Sabino Imaz eta Jose Mari Irizar izan ziren.

Argentinako bidaia

Irailaren hasieran herriko talde batek Argentinara egindako bidaian grabatutako bideoa, datorren ostiralean, azaroak 10, ikusi ahal izango da 19:00etan, Kultur etxean. Bideo horretan daude bilduta besteak beste, bi Idiazabalen adiskidetzak biltzen duen agiriaren sinadura eta idiazabaldarrei, argentinarek egindako harrera.

Eduardo eta Iparrari omenaldia

Kimuak elkartek antolatutako azaroaren 16tik 19ra omenaldia eskainiko zaie Eduardo eta Iparrari. Azaroaren 16an, Arnaldo Otegi EHko bozeramaleak egoera politikoari bu-



Fotoetxe

Euskal Herriko Gazta Txapelketa

Larreko (Araba) Jose Ignacio Gonzalez de Herediak irabazi zuen, urriaren 29an Idiazabalen egindako Gazta txapelketa. Hego Euskal Herriko 40 artzainen arteko lehia izan zen. Bigarren saria, Ordiziako Xabier Arsuagarentzat izan zen, hirugarrena, Done Bikendi Haranako (Araba) San Bizente gaztandegikoentzat. Bigarren eta hirugarren sailkatuaren artean, puntu erdiko aldea izan zen. Irabazleak ordea, bigarrenak baino 17 puntu gehiago lortu zuen. Txapelketa ospatu bitartean, Luis Katarain eta Gorka Legorburu artzainak gazta egiten aritu ziren. Plazan eta inguruan, jaki, edari eta artisauen postuak egon ziren jarrita.

uruko hitzaldia emango du iluntzeko 8etan. Azaroaren 18an, Kimu elkartean, mus txapelketa hasiko da arratsaldeko 4etan. Ordu bete lehenago irekiko da izena emateko aukera. Gauean, 10,30ak aldeara, bertso jaialdi berezia izango da. Batetik, bertso-jariak izango dira Boby Xum taldearen eskutik. Aitor Sarriegi, Jon Goenaga eta Igor

Egurenak osatzen dute taldea. Jarraian, Xabier Amuriza, Mikel Mendizabal eta Amaia Agirre arituko dira. Azaroaren 19an, azkenik, Atxurbira mendi ibilaldia egingo dute, goizeko 10etan plazatik abiatuta, oroitarrian omenaldia burutzeko.

Xabier Urteaga

Aurreko herria euskalduntzeko ahaleginarekin jarraituz, euskarako ikastaroak hasiak dira jadanik.

Azaroaren 2an hasi ziren eta astearte eta ostegunetan izango dira, egunean bi ordu, goizeko 9,30etatik 11,30etara eta arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara.

Silo-bola plastikoen bilketa

Silo-bola plastikoen bilketa kanpaina berria hasia da dagoeneko. Aurtengoan ere bilketa hilean behin egingo da; hilabete bakoitzeko hirugarren asteartea da horretarako izendatutako eguna. Plastikoa bezperan atera behar dira horretarako markatutako gunetara.

Zerainen bilketa lekuak

Euskara ikastaroak

Zabalegiko kanpa eta Barbari auzoan, Oporlekun, Basozabal bide barrenean izango dira.

Medikuanerako txandak

Joan den hilabetea ezkerotik eta Osakidetzaren aginduz, ezinbestekoa da medikuarengana joateko aurrez txanda hartzea. Horretarako 943 80 11 63 telefonora deitu behar da goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak bitartean.

Etxeetara egin behar dituen bisitetarako ere ordua hartu behar da.

Herriko tabernak

Ostatu jatetxea, urteko oporraldia dela eta, itxita izango da azaroaren 8tik 29ra.

Mandioa taberna, berriz, beraien oporraldia pasatu ondoren, irekita dugu urriaren 31 ezkerotik.

Mari Flor Mendizabal



San Martin azoka inguruan ekintza ugari

Aurten San Martin ferian ohi-ko ekintzez gain (ganadu lehiaketa, artisau eta barazkien erakusketa) ardo eta gazta dastaketa ikastaroak, Aizkorri eta Urbiako artzainen arteko II. gazta lehiaketa, profesionalen pilota partidak eta Kukubiltxoren ikuskizuna ere izango ditugu.

Iaz bezala, gazta lehiaketaren ondoren dastaketa egingo da pilotalekuan bertan herriko elkarten laguntzarekin eta bai Kultur Etxean eta baita pilotalekuko 2. solairuko geletan ere erakusketak egongo dira: Kultur etxean pintura eta tailaketa ikastaroetan parte hartutakoenak eta pilotalekuko geletan Marixular ehungintza tailerreko erakusketa.

Igande eguerdierako ere IX. DV-ETB torneo izango dugu.

Azaroan, San Martinez

gain, herriko Jubilatu elkarteak ere hainbat hitzaldi antolatu ditu: Azaroak 8, asteazkena: zahartzaro ona, bizi-ohiturak eta osasuna, burua zaharkitzea, zer aldatzen da? gaiari buruzkoa izango da.

Azaroaren bigarren hamabostaldian ere hitzaldi gehiago badituzte aurrikusita eta hauen berri aurrerago eman- go da.

Aitxurikoak Cordoba eta Sevillan

Urriaren 30ean joan ziren Aitxuri Herri-eskolako 6. mailako ikasleak Andaluzia aldera, eta azaroaren 6an itzuliko dira. Eskola Ibiltari- ren programaren barne gau- zatu da eta bere helburua jen- de bat ezagutu eta bertako kultura ezagutzea da. Hona joateko Eusko Jaurlaritzara proiektu bat aurkeztu behar



Jose Migel Azurmendiren gazta garaile Pirinioetan

Urriaren 15ean La Seu d'Urgellen 'San Ermengol' feriare- n barnean egindako Pirinioetako gazta lehiaketan, Uztaran ba- serriko Jose Migel Azurmendik jaso zuen lehenengo saria. Feria honetan gazta desberdin ugari- ren lehiaketa egiten da. Iazko San Martinetan feria horren antolatzaile bat izan ge- nuen Zegaman eta bertan parte hartzera gonbidatu zituen Aiz- korri eta Urbiako artzainen arteko I. gazta lehiaketako lehen hiru sarituak.

da eta onartuz gero bidaia egin daiteke.

Elkartu Nahi txirrindu elkartea

Elkartu Nahi txirrindulari el- karteak adierazi du, nahi duenak herriko edozein eda- ritegitan dituela errifak sal- gai.

Ingelerako klaseak

Elduaie- n Hizkuntza eskolak egindako deialdiaren ondo- rioz talde bat osatu da ingele- ra ikasteko eta astelehenetik aurrera 18:00etatik 20:00eta- ra emango dira.

Eduarne Albizu



Txorizugarri saridunak



25 txorizugarri aurkeztu dira IV. lehiaketara, hauetatik 2 helduenak, denak ere taldean egindakoak. 9 sari banatu zi- ren urriaren 27an udaletxeko areto nagusian egin zen eki- taldi jendetsuan. Arrakasta handia lortzen baitu urtez urte erakusketa honek. Aurten 1500 bisitari izan dira txori- zugarriak ikusten. "Zenbait haur egunero gurasoekin etortzen ziren erakusketara, ia-ia zaintzen ere egoten zi- ren. Honek beraie- n erakus- keta bezala hartzen dutela esan nahi du", azaldu digu Joxepa Madariaga antola- tzaileak. Aretoa oso egokia dela ere gehitu digu.

4. urtea izan arren beti txorizugarri ezberdinak ikus- ten dira, originalak eta oso landuak. Denek zerbait me- rezi bazuten ere 9 sari banatu ziren, 8 horretarako izenda- tutako epaimahaiak emanak eta 1 ikusleek. Sari guztiak liburu eta diskoak erosten gatzatzeko txartelak ziren.

Joxe Mari Jauregiren gazta txapelduna

Arabian finkatuta dagoen laz- kaotarrak Gernikako urriko azken asteleheneko azokan gazta txapelketa irabazi zuen. Ordiziako txapelketan ere 4. geratu zen Joxe Mari.



San Martin jaiak azaroaren 10etik 12ra

Azaroa iristearekin batera, herrian festa usaina da nagusi. San Martin egunaren inguruan egiten diren herriko jai nagusiak bertan ditugu. Udalak prestatu du dagoeneko egitaraua.

Azaroaren 10ean, ostira-lean, iluntzeko 8etan txupinazoarekin hasiko dira jaiak. 8,30etan, ohiko gaztina jana izango da. Jarraian, nahikoa dantza egiteko aukera izango da Etzakit eta Kristina eta Amaia taldeekin.

Azaroaren 11, Martin

Deunaren eguna, egun bete-betea izango da: goizeko 10etan, goiz eresia Alegiko txistulariekin; 11etan meza nagusia eta 12etan, hamaiketako herritarrentzat. Ordu batean VIII. pala txapelketa-ko finala jokatu da. Arratsalde partean, haurrentzako jolas parkea muntatu dute eta helduagoentzat, mus txapelketa azkarra. 7etan, toka txapelketa herrikoia jokatu da eta herriko trikitilariak arituko dira giroa alaituz. Iluntzean, 8,30ak aldera, mutilzahar eta neskazaharren

afaria izango da. Gauean, 11ak aldean, Xuhat taldearekin nahikoa parranda egiteko aukera izango da. Goizalde-
ra, indarberritze saioa izango omen da.

Azaroaren 12an, igandean, goizeko 11etan, festetan zehar egindako pekatuen barkamen liturgia izango da. 12:00etan, soka dantza eta ordu batean, eskuzko pilota partidak. Arratsaldean, 6etan, Ikusgarria ikuskizuna izango da. Motozerraz egurra landuko dute. Jarraian,



Epelde eta Larrañaga trikitilariak izango dira. Gauerdian, 24:00etan, festak amaitzeko, azken traka izango da.



TOKI-ALAI Jatetxea

Jai
zoriontsuak
denoi!

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibarras errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinen taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzekoak dira Apaiz etxea, Triarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herritar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.



Herritarrak nagusi Ardiki egunean

Pasa berri den hilaren 29an ospatu zen gure herrian VII. Ardiki Eguna. Eguraldia lagun, goiz-goizetik euskal doinuek alaitu zituzten herriko kaleak. Eguerdierako Resti Pilotalekuaren inguruak jendez betetzen hasi ziren eta azken orduko prestakuntzak egitea soilik falta ziren mondeju eta gazta lehiaketari hasiera emateko. Kanpoaldean pottoka eta ardi erakusketak inguruari kolorea ematen zion bitartean, barnean Miel Antonio Sukiak, herriko gaztetxo batekin batera, ardi gazta egiteari ekin zion. Artean, urteroko erakusketaz gozatzeko aukera izan zen, baita mondejua egitearen erakustaldiaz ere.

Eskoletako belarrezko zelaietan, antzinako Aralarko artzainen jokoak ospatu eta gero, bi lehiaketeetako irabazleek izenak jakiteko irrikitan zegoen jendea. Mondeju ho-

berenaren saria Maria Luisa Moreak irabazi zuen eta 50.000 pezetako diru-saria eta txapela eraman zituen etxera. Iazko txapeldunak, Kaietana Etxeberria oreindainarrak, jaso zituen bigarren sariari zegozkion 35.000 pezetak eta Lazkao-etxe baserriko Eneko Azurmendik hirugarren sariari 20.000 pezetak irabazi zituen.

Aralarko gaztaren VI. lehiaketa irekian berriz, Inazio Irastorza "Katxiñe" atera zen garaile. Txapelarekin batera 50.000 pezetako saria jaso zuen iazko txapeldun berberak. Honen atzetik, Josu Aldasoro atundarra eta Juan Mari Zinkunegi errejildarra geratu ziren, eta 35.000 eta 20.000 pezetako sariak jaso zituzten, hurrenez hurren. Ondoren, 300 lagun inguru bildu ziren mondeju eta ardiki hornituriko bazkariak gozatzera.



Txozna batzordearen oharra

Lerro hauen bitartez, Zaldibiako Txozna batzordeak honako ohar txo hau kaleratu nahi du: urriaren 11n festetako egitarauaren barnean ospatu zen kontzertuan, txoznek diruz lagundu zutela azaltzen zen programan. Hauetaz gain, plaza inguruan kokatuta dauden lau tabernek (Estankok, Zaharren egoitzak, Joxepanek eta Illatik) ere kontzertu honetarako dirua eman zutela gogorarazi nahi dute.

Alfabetatze ikastaroak

Azken urteotan bezala, aurtentzen ere, euskaraz alfabetatzeko ikastaroa antolatu du Kultur Etxeak. Izena eman nahi duenak azaroaren 8a baino lehen egin beharko du Kultur Etxera joanda, edo 943-160338 telefonora deituta.

Antzerki saioa

Datorren ostiralean, hilak 10, eta Goierriko II. amateurren zirkuituaren barnean, Ordiziako "Urrup" antzerki taldeak "Batzarra emakumeena" izeneko antzezlan eskainiko du gaueko 10etan herriko antzokian.

Apaizaren agurra

Bost urtez Zaldibiako Santa Fe parrokiako apaiza izan den Fidel Tolosak bere lekua utziko dio Jesus Xabier Domingez apaiz gazteari. Azaroaren 5ean izango da aldaketa, eta honetarako meza berezia deitu dute. Fidel Tolosa Berastegi eta Elduaiengo elizetaz arduratuko da. Herrira datorren apaiz gaztea Urretxukoa da eta orain arte, Ordiziako parrokiaren aritu da zereginetan.

*Inaki Gurrutxaga -
Saroi Jauregi*



Herriko bi umeren bataioa

Urriaren 29an Mikel Goiaingerua Parrokian herriko bi umeren bataioa izan zen. Iñigo Altuna Etxeberria Andramaitzegi baserriko Juan Inazio eta Gurutzeren semea eta Ainhoa Goñi Olaetxea Ene-

tarriaga etxeko Modesto eta Salomeren alaba. Egun bikaina izan zuten, ospakizunak merezi duen bezala ospatzeko. Zorionak!

Inaki Ugald

Santu Guztien eguneko ospakizunak

Egun hauek, egun bereziak izaten dira gure artetik joandako senitarteko eta lagunak gogoratzeko. Gure herrian, beste askotan bezalaxe jende asko hurbiltzen da egun hauetan kanposantura eta elizkizunetara.

Aurtengo ospakizunak eguerdiko 12,30etan eta arratsaldeko 4etan izan dira.

Ardi jana Ostatu jatetxean

Azaroaren 3an, ostiralean, ardi jana egongo da Ostatun.

Telleriatarren urteroko bilera

Azaroaren 5ean izango da aurtengo Telleriatarren bilkura. Eguerdiko 12,30etan meza izango dute Lierniko Ermitan eta ondoren mahaiaren inguruan elkartuko dira guztiak Mujika jatetxean.

Udala herritarrei iritzi eske



Herri sarrerako makaldiaren txukunketa eta kanposantuko obren inguruan herritarren iritzia jakiteko, urriaren 25erako deitutako bilerara 50en bat lagun azaldu ziren.

Bariantea egin ondoren, Madalenako biribilgunetik Zubiberrirainoko ibilbidearen mantenimendua Diputazioetik Udalera pasa da. Hala ere, Diputazioak egoera onean utzi behar du ibilbidea, Jermanenerainoko bidea bre-atuz, Madalenako erorigunea konponduz eta arboletan inbertituzko 4.900.000 pezeta emanez. Berrituko diren zuhaitzak, goi aldekoak dira, egoera txarrean daudenak dira. Horretarako, Udalak 'Lur' enpresa paisajistari proiektu posibleak eskatu dizkio. Irizpidea, arbolak mantenduz herrikaskoa eta Errebale auzoa ikustea da. Aipatu enpresak lau aukera planteatu zituen diapositiba bidez bileran. Lehena eta euren egokiena ikusten zutena, behetik gora ezkerretik palmondoak eta eskubitik urda-reondoak ('Pyrus calleriana') aldatzearena da. Bigarren aukera, bi aldeetan urda-reondoak jartzearena (forma

konikoa, trinkoa eta hazkuntza ertaina, udaberrian loraldi zuria dute eta udazkenean laranja kolorea hartzen dute hostoek). Aukera hau da herritarrek eta udalak berak ere egokiena ikusten dutena. Beste aukerak 'Ginkgo' eta 'Quercus robur' zuhaitz motak landatzearenak izan ziren. Farolak, berriz, lehengo ez gain ezkerretatik 15 eta eskubialdetik 8 gehiago jarriko dira. Metalezko babes-he-siak ere beste itxurosoago batzuegatik aldatuko dira. Lan hauek urte amaiera baino lehen hasiko dira.

Hilerrian egingo diren obrei buruz ere pasa zen informazioa. Ate sarrera berria eta lehenengo faseko 72 nitxo-obra ere urte amaierarako hasia espero da.



Joxemari Telleriaren erakusketa

Azaroaren 5ean inauguratu zen Andoaingo 'Ayerbe Galer-ia'n abenduaren 7arte iraungo duen pintura erakusketa. 15 lan izango dira ikusgai, guztiek musika eta pinturaren arteko harremana isladatzen dute. Galeria, Kale Nagusiko 1 zenbakian dago kokatua eta erakusketa astelehenetik zapa-tura egongo da zabalik, goizez 11:00etatik 13:00era eta arratsalde 16:30etik 20:00etara.



Albisunearen itxura berria

Albisunea, Arrue edo Sandonenea bezala ezagutua den etxeak honako itxura hartu du orain. Fatxada, teilatu eta kanaloien ber-ritzea Aranzadi elkartearen ardurapean burutu da udala eta kutxaren laguntzarekin.

Egin behar ez denaren adibidea



Herrian, antzeko astake-ria gehiago ikus badai-tezke ere, honako hau begibistakoa da; Arrue etxearen fatxada erabe-rritzean garbiago geratu dena gainera. Etxebizi-tza berri baterako leihoa ateratzeko, etxe sarrera nagusiko arkuari puske-ta kendu zioten. Ondro-en, leiho barrenetik ha-sita, arkuaren zirkunfe-rentzia masaz estaliz txi-kitu zuten astakeria dixi-mulatu nahirik.

Ondozuri kuriosoa

Joxe Martin Etxeberriak pasa den aste-an Aikorbarreneko pagadi batean aurki-tutako ondozuriak beste ondo bat du txapelean. Ondoaren ipurditik aterata-koak bai baina txapeletik ateratakorik ez du ezagutzen Joxe Martinek.

Joseba Telleria

Kultur ekintzez josia

Horrelaxe datorkigu milurteko azkenaurreko hilabete hau, kultur ekintzaz beteta. Artisauen erakusketarekin utzi genuen urria eta azaroa hainbat abesbatzen saioekin hasi dugu.

Beldurrezko eta fantasiatzko zinea

Beldurrezko eta fantasiatzko zine maratoiak azaroaren 10ean, ostirala, izango du bere tarte. Iluntzeko 22:15etatik aurrera hainbat filma ikusteko aukera izango da, bata bestearen atzetik, zein baino zein beldurgarriago eta fantasiatzko beterikoa.

Ikusi Makusi

Ikusi Makusi programaren barruan poesia, musika eta diapositiba muntaiaz osatutako ikuskizuna ikus-entzuteko aukera izango da azaroaren 11n, gaueko 10etatik aurrera Barrenan "uztail oparo ostean" lana eskainiko baita.

Eta hau guztia gutxi balitz hil amaieran, 23an adibidez, Txan Handia magoa ikusteko aukera izango da Herri Antzokian.

Bach musikaldia

Bach Musikaldiaz gozatzeko aukera ere izango dugu hilabete honetan. Azaroaren 15etik hasita 18ra bitartean "Kontakarion" eta "La Trulla de Bozes" taldeen kontzer-



tuak, Ainhoa Garmendia ordiziar sopranoaren abes-
tsaioa edota Juan Sebastian Bach beraren "Pasioen korak" lana entzuteko aukera izango dugu, azken hau Donostiako Orfeoia eta J.M. Azkue organojolearekin eta J.A. Sainz Alfaroren gidaritzapean. Guztiak ere elizan izango dira.

Ardoaren azoka

Azaroaren 13tik 19ra bitartean Arabako Errioxako ardoen asteari egokituko zaio txanda. Asteazkenean zehar hainbat hitzaldi izango dira ohi lege eta asteburuan Arabako Errioxako hainbat upategietako ardoak dastatzeko aukera izango da. Tartean, 18an hain zuzen, Ordizian Euskal Jaietako gazta txapelketan azken 10 urteotan irabazle izandakoen artean lehiaketa egingo da.

Beti Argi banda

Beti Argi musika bandak ere kontzertua emango du azaroaren 25ean Enparantza Nagusian.

Garaje berriak

Geroz eta kotxe gehiago ditugula eta geroz eta garaje gutxiago geratzen direla kontuan hartuta, garaje berriak egiteko nahia azaldu du Udalak. Nahia gauza bat da, ordea, eta egitea beste bat. Izan ere denok dakigu Ordizia hain txikia izanik geroz eta leku libre daudela. Udala arazo honen jabe izanik, herriartean artean inkestatxo bat egiten ari da benetan ordiziarren garaje beharrak zenbaiterainokoak diren jakin asmoz. Honekin batera proposamen pare bat aztertzen ari da Udala. Bata Garagartza Plaza atzean dagoen "Anselmoren baratza" bezala ezaguna den horretan garajeak egitearena da eta bestea Goierri Kalea eta Urdaneta kale bitartean, Barandiaran Altzariak dendaren atzean egitea. Inkesten arabera erabakiko dute egiteak merezi duen ala ez.

Labur-labur

Josu Aierberi omenaldia

Aurreko alean adierazi genizuen bezala, 7 urte kartzelan eman ondoren aske utzi zuten urriaren 17an Josu Aierberdi ordiziarra. Egun berean egindako harreraz gain, omenaldi berezia egin zitzaion urriaren 29an. Pilotalekuan juntadizoa egin eta bazkari mokadu bat egin ondoren Enparantza Nagusian egin zitzaion omenaldi nagusia. Bertan, makina bat jenderen aurrean, txalapartajoleak, dantzariak, bertso-lariak... izan ziren eta herriko hainbat taldek opari eskainizak egin zitkien "Txupi" preso ohiari. Honen amaierako hitzak hunkigarriak izan ziren. Omenaldiari amaiera emateko ohiko manifestazioa herriko kaleetan zehar eta ondoren Herrikoa eta Gaztetxeko bera preso zegoeneko argazkiak kentzera joan ziren bertaratutako guztiak. Ongi etorri Txupi!

Pedro Garciak kale

7.000 metroak eskasegiak zirela eta 8.000 metroko gailurra egitera joan zitzaigun irailean Pedro Garcia Himalaia aldera. Bertan helburua 8.201 metroko Cho Oyu gailurra egitea zen. Hainbat saiakera egin ondoren, ordea, helburua bete gabe itzuli behar izan du etxera, hurrengo batean zorte hobea izango duelakoaren asmoarekin. Era berean, Pedro etxeratu den bitartean Iñaki Ugartemendia Everestera joateko espedizioa prestatzen ari da.

Aitor Calvillo

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxe: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

'Araujo y los mecanicos' talde ordiziarrek maketa kaleratu du

Zortzi abestiz osatutako maketa kaleratu du Ordiziako 'Araujo y los mecanicos' musika taldeak. Rock estiloko musika egiten dute. Duela bi urte sortu zen taldea eta Goierritik kanpora atera nahi dute beraien musika. Promozio lanean ari dira orain han eta hemen maketak banatzen. 1.000 pezetan daude salgai.

1998an sortu zen 'Araujo y los mecanicos' taldea eta 1999ko Ordiziako jaietan egin zuten debuta. 4 ordiziarrek osatzen dute taldea: Borja Ramos (baxua), Pablo Sanchez (bateria), Javi Gomez de Segura (gitarra eta ahotsa) eta Igor Araujo (ahotsa eta gitarra).

Goierriin eman dituzte kontzertu gehienak eta orain, Goierriko mugak gainditu nahi dituzte. Lan kontuak direla medio, nahikoa zailtasun izaten dute elkartzeko baina gauzak ondo antolatuz gero, moldatuko omen dira.

Taldearen promozio lanearako maketa kaleratu dute ordiziarrek. Irratietara eta disketxeetara eraman dute maketa. Estatu osoan kaleratzen den katalogo batean ere agertu dira. Orain aukerak azter-

tzen ari dira. Udako oportunitatean ere aprobetxatu dute diskoa Estatu espainiarreko leku ezberdinetan banatzeko. Web orrialdea ere sortzeko ari dira.

Zortzi abesti

Zortzi abestik osatzen dute maketa. Musika estiloaz galdetuta, zera erantzun digute: *"denetik egiten dugu, baina batez ere rocka. Baina ez da betiko rocka. Betiko rocka baino azkarragoa da".*

Beraiek konposatzen dituzte kantuak. Hizkiak edo letrak ere beraiek egiten dituzte. Gaiak, ugariak: parranden ondorioak, nesken ingurukoak, beti kritikatzeko ari direnei buruzkoak, Madrilen hil zuten Aitor Zabaleta errealezaleari buruzkoa... gizartearen dagoen faltsukeria....



Kantuak gazteleraz dira. Abesti berriak konposatzen ari dira dagoeneko.

Ernialdeko Txepe disketxean grabatu dute maketa. 500 kopia atera dituzte eta 1.000 pezetan daude salgai, Ordiziako Baga-Bigan dendan eta hainbat tabernetan eta Beasaingo Bai Bai tabernan. Beraiekin harremanetan jartzeko telefonoak hauek dira: 943888521 / 669152278.

Lokalaren arazoa

Entsaiatzeko lokalaren arazoa daukate musika talde gehienek eta 'Araujo y los mecanicos' taldea ez da salbuespena. "Garaje batetik bota

gintuzten, arrazoirik gabe. Orain entsaiatzen dugun lokala Seguran dago. Lau taldek entsaiatzen dugu bertan. Ordizian ez dago lokalik. Udalak pasatu egiten du. Urtean 20.000 pezeta ematen dizkigute eta diru horrekin ezin da garajerik alokatu", salatu dute.

Taldearen izena bitxia da benetan. Nondik ote datorren galdetu diegu: "garaje batzutan hasi ginen entsaiatzen. Denok mekanikoak gara eta horrela hasi zitzaizkigun deitzen eta horrela gelditu da. Izen egokiagorik ere ez zitzaigun bururatzen eta orain gustatu egiten zaigu".

IBAI ONDO



AROSZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako arosztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUJICA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea



OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✕ Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✕ Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu


☎ 943 880 728 Garmendia Otaola 7 behea. BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Azaroak 16, 'Amor de madre' laburmetraia eta 'El extranjero loco', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

Azaroak 2, 'Buffalo 66', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Azaroak 9, 'Flores de otro mundo', 20:30ean, Herri zineman.

Azaroak 16, 'La delgada linea roja', 20:30ean, Herri zineman.

Azaroak 23, 'Pecker', 20:30ean, Herri zineman.

ORDIZIA:

'X men',
Astlehena 6: 19:30

Beldurrezko eta fantasiazko zine-maratoia. Azaroak 10, Herri Antzokian, gaueko 10etan hasita.

'El extranjero loco' Gadjo Dilo (Frantzia, 1997)

Stephane, gazte frantziar batek Errumania zeharkatzen du emakume abeslari ezezagun baten bila. Ijito ahots hori buru duen arrasto bakarra kasete batean idatzitako izen misteriosu bat da: Nora Luca. Stephanen aitak bere bizitzaren azken momentuan entzundako kasete bat da, hain zuzen ere. Bere bidaian Isidororekin topo egiten du, ijito herriska baten buruzagia-ekin, honek bere semetzat hartzen duenari. Baina batez ere Sabina da Stephanek bidai honetan aurkitzen duena. Izaera sutua duen pasioz eta sentsualitatez beteriko emakume askea.

Toni Gatlifren (Aljeria, 1948) ama ijitoa izateak, eragin zuzena izan du zuzendaria herri honegatik erakusten duen interesean, gutxienez bere zortzi filmeen erdian agerian geratzen den bezala.

bertsolariak

ATAUN:

Azaroak 10, 22:30ean: Bertso jaialdia Herri Antzokian: Andoni Egaña,

Joxe Agirre, Jexux M. Irazu, Juan Inazio Begiristain, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, eta herriko bertsolari gazteak: Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Iban Urdangarin eta Aitzol Munduate.

antzerkia

ATAUN:

Azaroak 11, 18:30ean, Herri Antzokian: "Zereko zera zertzen delako, zerako zera-ekin" Azpeitiako Lakrikun taldearekin.

Azaroak 12, Jentilen etorrera, 18:00etan.

BEASAIN:

Azaroak 9, Yllana taldearen '666' lana, Usurbe Antzokian, 21:00etan. Sarrera: 1.000 pezeta.

Azaroak 12, Kollins Klown taldearen 'Bikingoak' ikuskizuna, Joan Iturralde plazan, 18:00etan.

ZALDIBIA:

Azaroak 10, Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'Batzarra emakumeena' lana, 22:00etan, antzokian.

musika

ATAUN:

Azaroak 10, 21:00etan Rock kontzertua Oargin: Iraun, Guda garaia eta Animese Martinez.

Azaroak 10, Drindots, San Martin plazan, 24:00etan.

Azaroak 11, Imuntzo eta Beloki, 24:00etan.

BEASAIN:

Azaroak 10, Juan Carlos Perezen emanaldia, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera: 1.000 pezeta.

Azaroak 11, Brigantia Folk taldea, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Azaroak 12, Txistularien eguna: 12:30ean, kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 22, Musika eskolako ikasleen kontzertua, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 25, Beti Argi musika bandaren kontzertu-dantzaldia, Plaza Nagusian, 19:30ean

bestelakoak

ATAUN:

Azaroak 11, 17:00etan, pailazoak 'Kutxo eta Jai' Auzoeta Udal Kiroldegian.

ORDIZIA:

Azaroak 23, Txan handia magoa, Herri Antzokian, 17:30ean.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA

Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

KASTE

AKADEMIA

- Eskola laguntza maila eta arlo guztiak
- Unibertsitate-maila, zikloak
- Banakako laguntza hezkuntzako profesionalen eskainia

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN

Bach musikaldia

Urteroko Bach musikaldiaren txanda heldu da. Azaroaren 5ean, Ataungo San Martin elizan izan zen lehenengo kontzertua. Ordizian, beste hiru izango dira.

● **Azaroak 15**, Kontakarion eta La Trulla de Bozes taldeen kontzertua, Eliza nagusian, 20:15ean.

● **Azaroak 17**, Ainhoa Garmendiaren saioa, Eliza nagusian, 20:15ean.

● **Azaroak 18**, J.S. Bachen 'Pasioen Koralak', Donostiako Orfeoia eta J.M. Azkue organojolea, J.A. Sainz Alfaroren zuzendaritzapean.

hitzaldiak

BEASAIN:

Azaroak 9, Txaro Arteagaren hitzaldia Asmuberen 10. urteurrena ospatzeko, Udaletxeko Batzar aretoan, 18:00etan. Antolatzailea: Asmube.

ZALDIBIA:

Azaroak 23, 18:30ean, Beti-Gazte elkarteak, Ama-
goia Muruamendiaraz, ko-
lesterolaz eta bere eraginei
buruz jardungo da.

erakusketak

BEASAIN:

Azaroaren 12ra arte, IX. Aire zabaleko pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Usurbe antzokian.

Azaroaren 11ra arte, Angel Izpizua donostiarraren argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Abenduaren 10era arte, 'Errota eta energia berrizta-
garriak' erakusketa, Igartza jauregian.

Azaroaren 16tik 30era, Belokiren peñak aurkeztu-

tako I. Argazki lehiaketa-
ren erakusketa, Antzizar ki-
roldegian.

Azaroaren 17tik 26ra, As-
muberen 10. urteurrena de-
la eta, antolatutako taile-
rren eta ikastaroen lanen
erakusketa, Usurbe Antzo-
kian.

Urrian eta azaroan, Disko-
aren historia erakusketa Zi-
nema tabernan. Sorreratik
gaur egunerarte. Garaiko
materiala ikusgai.

ORDIZIA:

Azaroaren 26ra arte, Mar-
tina Dasnoy artistaren pin-
tura erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 12, Sarastarrira.

Azaroak 19, Arkaitz-Aloña.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 12, Mugarriluze-Au-
mategigaña.

Azaroak 19, Lizarrusti-Orma-
zarreta-Arbizu.

Ikusi-makusi

Ordiziako Euskara Aholku batzordeak antolatuta, ikasturte berria martxan jarriko da Ikusi-Makusi programa. Datorren hamabostaldirako bi ekitaldi izango dira.

Poesia-musika-diapositiba emanaldia

'Uztail oparo ostean' ikuskizuna izango da azaroaren 11n, Barrena kultur etxean, gaueko 10etan. Poesia, musika eta diapositiba muntaia izango da.

Txan handia magoa

Azaroaren 23an, Ordiziako Herri antzokian, Txan handia magoaren magia ikuskizuna izango da, 17:30ean.

Kukubiltxoren Txirrikiz, Zegaman

Azaroaren 12an, arratsaldeko 5etan, Zegamako pilotale-
kuan, Kukubiltxo taldearen Txirrikiz ikuskizuna ikusgai
izango da. Arrazakeriaren aurkako adierazpena egiten du
Kukubiltxok bertan. Txirrikiz neskato etorkin beltzaren ba-
ten istorioa kontatzen da bertan.

Yoga: meditazio ikastaroa

Ayoc, Yoga klasikoko elkarteak antolaturik, azaroaren 6tik
8ra, meditazio ikastaroak izango dira Harold Sequiera ira-
kaslearen eskutik. Azaroaren 9an berriz, Sutras Yogari bu-
ruzko tailerra izango da. Barrena Kultur etxean izango dira
ikastaroak. Gogoratu, azaroan, erlajazio ikastaroak izango
direla Lazkaon eta Ordizian. Informazio gehiagorako tele-
fona: 943 88 97 70 - 943 88 06 01.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Azaroak 11-12: Jauregi

(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 16 09 49.

Azaroak 18-19: Atorrasagasti

(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 88 29 34.

Etxebizitzak

salgai

➔ Zegaman, San Bartolomen, etxea salgai. 943801565-943801903.

➔ Etxebizitza salgai Legorretan. Dena berria. 943806404.

➔ Movil-home salgai, Jaizkibelgo kanpinean kokatua. 3 x 8. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainua (guztiz hornitua). Abantze finkoa dauka. 943882111.

➔ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Berria, 70 m²-koa. Ekipatua. 627869700.

➔ Lazkaon pisua salgai. 90m²-koa. 649035311.

➔ Zegaman etxebizitza salgai, bodegarekin. 943888113

errentan

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da asteburu edo zubietarako. Handia eta guztiz hornitua. 948539381.

Bestelakoak

salgai

➔ Unitekno markako vaporettoa salgai, bere plantxa eta osagarri guztiekin. Erabili ga-bea, beraz, egoera oso onean. Prezioa, 65.000 pezeta. 943653239.

➔ Sutarako egur lehorra salgai. 2 metro-tan moztuta. 943723504.

➔ Oso gutxi erabilitako pianoa salgai: sakonera 65 zm; zabale-
ra 147 eta altueran 95 zm. 943882467.

➔ Jangelako altzari zaharrak salgai: taila-
tutako 2 komoda eta mahaia 6 aulkirekin. 639779592.

➔ Sua pizteko egurra, txikitua, salgai, zakuetan. Etxeetara eramaten da. Bulego ordutegian deitu. 943882695.

➔ 2 sehaska handi, mahaia eta apalak sailgai. Sehaskak handiak dira, mueliezko koltxoidunak. Izarak eta koltxa ere salgai. Guz-
tia 60.000 pezetan. 943888541. 21:30etik aurrera deitu.

➔ Merkantzi garraio-
rako tarjeta salgai. 943180324.

➔ Pigini akordeoia, 42-B, salgai. Erdi mai-lako ikasketetarako egokia. Jabier. 943465724.

erosi

➔ Kanpin denda han-dia erosiko nuke. Ber-din da zaharra izatea. 943723504.

Negozioak

traspasatu

➔ Ordizian taberna traspasatzen da. Erdi-gunean dago. Berritua. 943882883.

Animaliak

opari

➔ Katakume siame-sak oparitzen dira. 943885349 (Dolox).

➔ 10 hilabete dituen pastor aleman arraza-ko txakurra oparitzen dut. Josune. 943806048.

salgai

➔ Cocker eta boxer arrazako txakurkume-ak salgai daude. Pede-greearekin. 696057346.

Ibilgailuak

salgai

➔ Peugeot 205 ko-txea salgai. SS-X. Beti garagean egondakoa. 943888795.

➔ Seat Malaga 1.500 salgai. Igogailu elek-trikoa, itxitura zentra-lizatua, aluminiozko llantak. Prezio interes-garria. 655740571.

➔ Renault 9 TS autoa salgai. 80.000 km. Be-ti garajea edukita-koa. 100.000 pezeta inguru. 943027075.

➔ Seat Ibiza TD sal-gai. SS-AT matrikula-duna. 686261210.

➔ Ford Scort 1.600 salgai. Diesela. Prezio oso interesgarria. Pa-txi. 655740571.

➔ Rieju First ziklo-motorra salgai. 50 cc-koa. 20:00etatik aurre-ra deitu. 943884423.

Lana

eskaerak

➔ Neska euskalduna behar da tabernan zer-bitzari lanak egiteko. 679579621.

➔ Mutil bat behar da igeltseritza lanerako. 943889576.

➔ Ileapaintzaile bat behar da, Arrasate in-guruan. Esperientzia-duna. Epe luzerako lana. Lan orduetan 943792259. Gauetan, 943770056.

➔ Seguran pertsona bat behar da igande arratsaldeetan tabernan lan egiteko. 943800251.

➔ Sukaldari bat be-har da asteburuetara-ko. 943886243.

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 659964794.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

KILOMETROAK-2001

DAGOENeko MARTXAN

Antolaketa lanak hasi dira jada "Andramendi. Beasaingo Ikastolan", beraz hasi da dagoeneko datorren urteko urrian Beasainen ospatuko den euskara eta ikastolen jaia; KILOMETROAK-01, bere ibilbidea egiten; gaurtik hasi eta 2001eko urrirarte kultur eta kirol mailako ekintza eta jaialdi ezberdinak antolatzea aurrikusten da.

Kilometroak - 01 eko batzordea osatzen duten lan - talde ezberdinak dagoeneko hasi dira beharrezko pausuak ematen, ekintza eta jaialdi horien antolaketa; Goierri eta bereziki Beasaingo haur, gazte eta ez hain gazteek duela hogeita bost urteko izpiritu berberaz, euskaraz eginez ikastola egiten goza dezaten.

Beasainen ospatuko den *Kilometroak - 01* honek badu, esanahi berezi bat goierritarrentzat eta ikastolen mugimendu osoarentzat. Kilometroak honetan ospatuko baita euskaldunok batzen gaituzten euskara eta ikastolen jai guztien (Kilometroak, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Herri Urrats eta Nafarroa Oinez) sorreraren 25. urteurrena. Gogoratu behar dugu, Kilometroak izan zela lehenengo gisa honetako

jaia, ondoren Gipuzkoatik, Euskal Herriko beste lurraldeetara ere hedatu zelarik. Beraz mugimendu guzti hau Goierriin, Beasainen orain 25 urte sortu zela jakinik, ohore handia eta tamaina berdineko erronka da *Kilometroak - 01* en antolaketa "Andramendi. Beasaingo Ikastolarentzat". Antolaketa lan erraldoia suposatuko du *Kilometroak - 01* ek, eta jaia ez da borobila izango duela 25 urte bezala Goierriko gizon-emakume askoren laguntzarik gabe. Horregatik gonbida-

tzen zaituztegu **Kupoitxo** hau betetzea eta Urbialde,1 Euskadiko Kutxaren solairuartera iristaraztea. Bertan ezarria baitago Kilometroetarako bulegoa. (Bulegoa itxita balego, ate azpitik sartu kupoitxoa edo faxez bidal dezakezue ikastolako zenbaki honetara 943 - 885312)

Bide batez, lerro hauek erabili nahi ditugu Euskadiko Kutxari eskerrak emateko bere lokala uztean Kilometroetako antolakuntzari eman dizkion laguntza eta erosotasunagatik.

Lan-taldeak

- ✖ Kultura
- ✖ Muntaiak
- ✖ Trafikoa
- ✖ Zirkuitua
- ✖ Garbiketa
- ✖ Osasuna
- ✖ Salmentak
- ✖ Komunikazioa

Izen-abizenak:

Telefona:

Urte guztian ☐

Egunean bertan ☐

Lan-taldeak

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

☎ 943 88 92 87

BEASAIN



Zegamarrak 1945ean

Luis Lasak utzi digu argazkia. 1945. urteko apirilaren 22an ateratako argazkia da.

Goiko lerroan: Victor Gorospe, Ignazio Arizkorreta, Jose Larrea, Ignazio Arrieta, Francisco Zabaleta, Imanol Pikasari, Juan Mendizabal, Julio Asurmendi, Luis Lasa, Santiago Zabaleta, Jose M. Zabaleta, Isidro Berasategi, Hilario Agirre eta Ignazio Arakama.

Beheko lerroan: Manolo Aramendi, Jose M. Ormazabal, Juan Kerejeta, Ignazio Zabaleta, Juan Garitano, Bizente Larrea, Angel Gereñu, Juan Aldasoro, Juan Larrea, Jose Asurmendi, Dionisio Irigoras eta Jose Otaegi.

**ZEGAMAKO
OSTATU
jatetxeak**
*egun ona pasa
dezazuela opa dizue!*
☎ 943 80 12 99

Vendi®
**EDURNE
JANARIDENDA**
Egun ona opa dizuegu!
☎ 943 80 15 66 ZEGAMA

AITZKORPE
TABERNA
Egun ona pasa dezazuela opa dizuegu!
S. Martin, 15 ☎ 943 80 11 62
ZEGAMA

MANOLO
Edaritegia




Pintxoetan aukera haundia!
☎ 943 80 12 36
ZEGAMA

**ZEGAMAKO KONTSUMO
KOOPERATIBA-k**
*egun ona pasa
dezazuela opa dizue?*




S. Martin, z/g ☎ 943 80 11 37 **ZEGAMA**

BAZTARTXO



*Egun zoriontsua pasa dezazuela
eta gau hobea!*
Atari kalea ☎ 943 80 03 40 **ZEGAMA**

ZEGAMAKO SAN MARTIN FERIA 2000

URBIA ETA AIZKORRIKO
ARTZAINEN ARTEKO

II. GAZTA TXAPELKETA

HERRI MAILAKO
ABERE ETA GANADUEN
LEHIAKETA

AZAROAK 11 LARUNBATA

Antolatzailea:



ZEGAMAKO
UDALA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua



amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK

Badakizu
lo egiten...



eta
amesten?

Oheak eta
osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxoi-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko
nordikoak

-%20

...eta egizu lo lasai

**23.000pta.tik
285.000pta.rainoko
aurrezpena**



SWISSFLEX

nagusia, 40 Beasain Tel/Fax: 943 88 68 51

2.000KO IRAILAREN 2YTIK, ABENDUAREN 16RA BALJODUNA, AKATS TIPOGRAFIKOA IZAN EZK.

* %20KO BEHEBAPENA. SF2 SERIEKO SF135-TIK, SF185-RA, ETA SF21 SERIEKO SF235-TIK SF-595-RE BITARTETIKOTAN EGONGO DA SOLUK, KOLTXOIAK EZ DUTE BEHEBAPENIK.

ATAUN

SAN MARTIN JAIAK

San Martinak iritsi zaizkigu eta GOIERRITAR guztiok, aurtengo jaiak gurekin ospatzera gonbidatu nahi zaituztegu horretarako antolatu ditugun ospakizunak elkarrekin gozatuz.

AZAROAK 11, LARUNBATA



17:00 PAILAZOAK "KUTXO eta JAI"
Auzoeta Udal Kiroldetxean

18:30 ANTZERKIA
Herri Antzokian:
"Zereko zera zertzen delako, zerako zerarekin" Azpeitiako LAKRIKUN taldearekin



24:00 IMUNTZO eta BELOKI taldearekin dantzaldia

ANTOLATZAILEA:

San Martingo Jai Batzordea
Ataungo Udalaren babesean



AZAROAK 10, OSTIRALA

21:00 ROCK KONTZERTUA OARGIN:

- IRAUN
- GUDA GARAIA
- ANIMESE MARTINEZ

22:30 BERTSO JAIALDIA

Herri Antzokian:
Andoni EGAÑA
Joxe AGIRRE
Jexux M. IRAZU
Juan Inazio BEGIRISTAIN
Sebastian LIZASO
Anjel Mari PEÑAGARIKANO
eta herriko bertsolari gazteak:
Haitz AIERBE, Oier ZURUTUZA,
Iban URDANGARIN
Aitzol MUNDUATE



24:00 DRINDOTS taldearekin dantzaldia

ONDO PASA JAIIETAN!

AZAROAK 12, IGANDEA

13:00 IKUSGARRI TALDEA
MOTOZERRAZ
egurra lantzen



18:00 JENTILEN ETORRERA

Ondoren MONDEJU JANA kalustran